



Iruñea eta Gasteiz arteko AHTko lotura Sakanan barna egin nahi du Sustapen Ministerioak / 12-13

Mintzakide markak hausten. Sekula baino pertsona gehiago euskara praktikatzen / 5

Igor Arrieta uhartearrak Euskal Herriko kadeteen ziklokross txapelketa irabazi du / 17

Nerea Baldak eta Izaskun Etxeberriak Iruñeko literatur lehiaketan hiru sari lortu zituzten / 21



Sakanak laugarren urtez populazioa galdu du. 2017ko ilbeltzaren 1ean 20.185 ginen / 11



Altsasu, gauerako aterpe

Elurteak harrapatuta gelditu ziren 1.400 pertsona hartu zituen Altsasuk / 2-5

Altsasu, neguko gau baterako aterpe

Etzegarateko portuaren itxierak 400 bat ibilgailu harrapatuta utzi zituen larunbatean. Altsasun eman zuten gaua 1.400 bat pertsonak: 450 kiroldegian, 230 Otadiako Kristo Deuna aterpean, 75 Burunda frontoian eta 645 altsasuarren etxeetan

ALTSASU

Elurra eginen zuela jakina zen. Eta egin zuen. Etzegarateko portuko Gipuzkoako aldea itxi zen, bigarren aldia 37 egunetan. Abenduaren leian bezala, larunbatean A-1 itxita gelditu zen. Kamioi batzuk gurutzatu ziren eta elurra kentzeko makinei pasatzea eragotzi zieten. Eta Leitzarango Autobia (A-15) itxita zegoenez, A-1en aldeko aukera egin zuten gidari askok. Opatuko zutenaren berri inork ez ziela abisatu esan zuten gidari askok. Koordinazio falta ere salatu zuten.

A-1 autobian, ez aurrera ez atzera, 300 bat ibilgailu gelditu ziren. Batzuk orduak eman zituzten autoetan, autobusetan eta kamioietan zain, errepidea zabalduko zenaren esperantzarekin. Pixka bat mugitu baziren ere, ezer gutxi izan zen. 5 eta 7 ordu arteko itxaronaldia egin zuten. Informazio -faltagatik kexu ziren. Frantzia, Suitza, Holanda edota Gipuzkoa helmuga zuten pertsonak ziren. Gehienak Marokon edo Portugalen hasi zuten bidaia. Haiek ziren eguberritako oporraldia etxean egin ondoren Europa erdialdera lanera bueltatzen ziren langile-familiak. Beste batzuk oportunitatik bueltan etxera bueltatzen



1.400 pertsona iritsi ziren Altsasura.

ziren gipuzkoarrak edota Nafarroako familiarekin errege eguna ospatu ondoren etxera bueltatzen zirenak.

Gauzak horrela 300 bat ibilgailu haietan zeuden pertsonen beste alternatiba bat eskaintzea beste konponbiderik ez zen izan: Altsasun gaua pasatzea. SOS Nafarroak autobian zeuden pertsonak erreskatatzeko plana indarrean jarri zuen 22:00etan.

Lehenik aterpera

Ordurako bakarren batzuk euren kabuz erabakia hartuta zuten

eta Altsasun bertan ostatua hartu edo herrian afaldu zuten. Herrira iritsi ahal izateko bidea zabaldu zuen Foruzaingoak. Batzuk euren ibilgailuetan iritsi ziren herrira beste batzuk, berriz, herri sarreraraino segurtasun indarren, larrialdi zerbitzuen eta altsasuarren orotarako autoetan iritsi ziren. Gero Altsasura oinez sartu ziren. 00:30 aldera hasi ziren iristen. Aurretik udalak herriko kale nagusiak elurrez garbitu zituen, baita kultur guneko zabalgunea ere, aparkaleku gisa erabili beharko

balitz hala erabiltzeko. Ez zen behar izan, baina Zelai kaleko espaloiak eta Zelandiko aparkalekua bete ziren.

Izan ere, etxean, poteoan, elkarreetan afaltzen... zeuden altsasuarren artean laguntza premiaren mezua zabaltzen hasia zen ordurako. Asko hurbildu ziren Otadiako Kristo Deuna aterpera. Han lehentasuna umeak eta haurrak zituzten familiak zuten. Haurdun zegoenik ere bazen. Aterpeko arduradun Javier Agirrebengoari 22:00etan jakinarazi zioten zabaldu beharko zuela eta begailua piztera joan zen. Gauerdirako bere kideak han ziren. Sartu ahala jangelara bideratu zituzten eta han edateko beroa eskaini zieten. Gero 85 geletara bideratu zituzten familiak. Baina jende emaria ikusita egoitzak 230 bat pertsona hartzen bukatu zuen, aretoetako zoruak 20 koltxoak jarri baitziren eta silloiak ere prestatu zituztelako. Baina aterpea bete zenean, halako egoera zuten familiarrak boluntario altsasuarren etxeetan hartu zuten ostatu.

Zelandi kiroldegira joan ziren gero. Ordurako elurretan harrapatuta zeuden pertsonak sartu ziren. Harmailetan eserita eta etzanda 150 bat pertsona zeuden eta kantxan beste horren beste. Adin guztietakoak haurretatik adinduetara. Hotzak akabatzen zeuden batzuk. Elurretarako batere egokiak ez ziren oinetakoak zituzten askok.

Altsasuarren laguntza

Gazteak nagusi ziren boluntarioen aurreneko egitekoa kateak sortu eta kiroldegira materiala sartzeko izan zen: ohetilak, mantak eta jan-edana. Ogitar-tekoak prestatzeko eta salda

berotzeko Altsasuko gastronomia elkarte guztiekin harremanetan jarri ziren eta hainbat ordezkari agertu ziren kiroldegian. Lagun Onak elkartean makina bat sandwich prestatu ziren. Baita Urdiaingo herri bazkarietako taldearekin ere. Haien utzitako suetan berotu ziren salda, esnea eta kafea. Boluntarioek ere bestelako suak eta eltze txikiagoak eman zituzten. Baita mantak edo plastikozko edalontziak. Hori guztia banatzeko puntu beroa sortu zen kiroldegi erdian. Eskolaren kontrako horman, berriz, ura eta jatekoak banatu ziren. Mahaien atzean boluntario altsasuarrek izan ziren.

Jatekoen eta edatekoen zati bat propio zabaldu zuten Eroski supermerkatutik hartu zen. Gauerditik 04:30era lautan zabaldu zuten denda esnea, salda, gailetak, molde ogia, York urdaiazpikoa eta pixoihalak hartzeko. DYAKoak arduratu ziren aterpeetara eramateaz. Gautxori tabernan, esaterako, hainbat kafe litro egin zituen gaueko lehen orduan. Frontoiko tabernakoei ere kantxako berogailua piztera joan ziren han jarri behar zituztelako ohetilak, baina atea zabaldu eta hainbati doako zerbitzua eman zieten.

Aldi berean, laguntza elkarreetako kideek ohetilendako gunea prestatu zuten kiroldegian. Lehentasuna haurrak zituzten familiek zuten han. Gertuko beste gune batean, zoru babes-

BOST ETA ZAZPI ORDU ARTEAN AUTOBIAN HARRAPATUTA GELDITU ZEN JENDEA ZEN ATERPETUA

Ostiralero

SAIOA

9:30ean

Errepikapenak: 14:00 - 19:00

Astelehenetik ostegunera

Metropoli forala

9:00etatik 11:00etara

Esataria: Maider

Gaurko gaiak:

- Javier Ollorekin elurteak harrapatutakoei Altsasuk emandako erantzunaz
- Altsasuko 5. edukiontzia ezarpenaz Beñat Agirrerekin
- Iruñeko literatur sarian saritutako Nerea eta Izaskun

www.guaixe.eus-en ON LINE

teko moketa jarri eta jendea han etzan zen. Altsasuarrak haien artean ere esnea edo salda banatu zituzten. Baina ordurako asko lo zeuden.

Itzultzaile lanetan aritu ziren hizkuntzak zekizkiten gazteak eta Portugalen edo Senegalen jatorria zuten altsasuarrak ere.

450 bat pertsonendako aterpe bihurtu zen kiroldegia. Eta orduan beste 200 bat pertsona etorriko zirela jakinarazi zuten. Haiek Burunda frontoira bideratuko zituztela zehaztu zuten. Izan ere, hasiera batean herrira ez joatea erabaki zutenetako batzuk gauak aurrera egin ahal, eta errepidea zabaltzen ez zela ikusita, ideiaz aldatu zuten. Baina 75 bat besterik ez ziren iritsi. Guardia Civilak esan zuen 1.400 pertsona gelditu zirela harrapatuta, beraz, beste 645 bat pertsonak altsasuarren etxeetan hartu zuten ostatu. Etxeren batzuetan zortzi ere izan ziren lotan.

Gauean joan-etorrian ibili ziren ibilgailu guztiak erregairik gabe gelditu ez zitezen gasolindegia bat ere zabaldu zen. Osasunbideako larrialdietako medikuak eta zerbitzuz kanpo zeudenak ere han izan ziren. Elurra zela eta gizon bat irrastatu eta sorbalda atera zitzaion. Altsasuko osasun etxean artatu zuten.

04:30erako egoera egonkortuta zegoela boluntarioek goizean pentsatzen hasi ziren: gosaria eman beharko zitzaaien guztiei. Eltzeak beteta eta sua piztuta, noiz nahi banatzeko moduan utzi zituzten esnea, salda eta kafea. Gaueko banaketaz arduratuko zirenak zehaztuta, 08:00etarako jarri zen hitzordu berria.

Errepidera

Bizpahiru ordu lo eginda, goizean frontoira eta kiroldegira iritsi zirenean boluntarioek jendea esnatuta, zutik eta informazio faltagatik urduri opatu zuten. Astelehenean lanean hasi behar zuten gehienek eta lehenbailehen bidali luzeari ekin nahi zioten. Gosariak egoitzetan eta autobusetan ustu ez ziren autobusetara eraman ziren.

08:30ean Leitzarango Autobia (A-15) zabaldu zela jakin zenean hainbat auto gidarik aukera horren alde egin zuten. Aurki zabaltzekoa zen Etzegarate. Horregatik, frontoian zeudenak kiroldegira eraman zituzten.

Ordu bat beranduago Etzegarateko portua zabaldu zen. Altsasuarren autoetan autobian zeuden euren ibilgailuetara joan ziren batzuk eta herritarrak gidatuta 18 autobusak aparkatuta zeuden tokietara lagundu zituzten. Esker oneko hitzak jaso zuten boluntarioek. Mekanikoak ere behar izan ziren, autoreen batzuk ez baitzuten martxan jarri nahi izan. Izan zen ere jendea bere helmugara autoz eramateko prest azaldu zen altsasuarrak ere.

Behin egoitzak hustuta, Gurutze Gorriko eta DYAKo kideek euren materiala jasotzen hasi ziren. Altsasuarrak, berriz, sukaldeetan erabilitako tresneria jaso eta garbitzeari ekin zioten. Soberan gelditutako jakiak pilatu eta udaletxera eraman zituzten. Kiroldegiko lurra babestu zuten moketak jaso eta haren eta frontoiaren garbiketa etorri ziren gero. 11:00ak ziren lan handienak despeditu zirenerako. Azken urtekoaren ondoren estatuko hedabide jeneralistek egindako lanaren isla emanen zuten galdetzen zioten askok eta askok beren buruari.

Laguntza lanetan egon ziren ehundik gora pertsona astelehenean oraindik egindako ahaleginaren nekea eta poza sentitzen zuten. Guztia pasatu ondoren gertatutakoa jakin zuten altsasuarrak ere harrotasunez hartu zuten euren auzotarrek egindako ahalegina eta hala jakinarazi zieten.

Leitzarango Autobia

Elurteak eraginda, larunbat eguerdian Leitzarango Autobia (A-15) hiru bat orduz itxita egon zen Donostiarako norabidean. Kamioiak gurutzatuta gelditu ziren, bide bazterrean hainbat auto. Handik ateratzea lortu zuten gidariak A-1 autobiatik, Etzegaratek desbideratu zituzten. A-1 eta Leitzarango Autobian (A-15) egon ziren auto gidari askok eta askok elur egunetan kamioiei ibiltzen uztea kritikatu zuten. "Gurutzatu eta elurra kentzeko makinei ez diete pasatzen uzten".

EHUNKA IBILGAILUEN ARTEAN 18 AUTOBUS ZEUDEN. AUTOETAN HERRIRA ERAMAN BEHAR IZAN ZITUZTEN



©DYANAVARRA



Igandean 09:30erako A-1 autobia zabaldu zuten, nahiz eta trafikoa mantsoa izan.

Gauza bera gertatu zen duela 22 urte

48 orduko elkartasun erakustaldia eman zuten altsasuarrek 1996an. Lehen egunean mila pertsoneri eman zieten aterpea eta jatekoa. Irurtzungo udaletxean eta Burundako beste herrietako etxeetan bidaiariak ere aterpea hartu zuten

ALTSASU

1996ko otsailaren 20a astearte inauteria izan zen. Arratsalde-gau partean elurra eta izotzak N-1 eta N-240 errepideetan mila pertsona inguru harrapatuta utzi zituzten. Bidaiarien jatorria anitza zen: Euskal Herria, Santander, Galizia, Asturias edo Portugal. Oraingoan bezala autoak, kamioiak eta autobusak gelditu ziren elurretan ezin aurrera egin. Esaterako, Ziordia parean bost autobus blokeatuta gelditu ziren, zazpi Altsasun. Han zeuden Santanderreko institutu bateko 104 ikasle eta Tolosko 6 urtetik aurrerakoak. Guztira 200en bat haur eta gazte. Kamioilariak, lapurreten beldur kamioitan gelditu ziren.

Eta ospakizunetan zen herriak haien guztiendako aterpea eta oinarritzko atenzioa opatu behar izan zuen. Inguruetako hotel eta ostatuetako plazak beteta, goizaldeko ordu bietan 350 pertsonak bilatzen zuten aterpea. Baina gauak aurrera egin aha-

la kopurua haziz joan zen. Milara arte. Jose Angel Agirrebengoa zen alkatea eta orain bezala, bidaiarien oinarritzko beharrak asetzea izan zen lehentasuna. Babes zibiletik 20:00etan jakinarazi zioten zein zen errepideetako egoera eta jendea hartzeko zegoen premia. Kalean 40 cm elur zeudela idatzi zuen Satur Leoz kazetari altsasuarra.

Dena prestatzera

Udal kiroldegia, ludotekak eta gimnasioak, Otadiako Kristo Deuna aterpeak, Errukiaren Andre Mariaren Ahizpen kongregazioaren eskolako kapera eta gimnasioa eta altsasuarren eta burundarren etxean egin zuten bidaiaren babeslekuarena. Haur txikiak etxeetan sartu zituzten. Familia bakar batek 14 pertsona hartu zituen.

Nola hala iritsitakoei lehen edateko beroa, salda eta kafea, altsasuarrek termotan eramandakoa izan zen. Hozkailuak ere hustu zituzten, behin behineko

aterpeetan zeudenei emateko. Lehen afaria emateko suhiltzailerek Iruñetik hiru ibilgailuetan Iparlateko esnekiak ekarri zituzten eta Altsasuko okindegiak 04:00etarako labekada berezia egin zuten. Armadak emandako 480 mantekin babestu ziren hotzetik bidaiariak. Gurutze Gorriri ere materiala bidali zuen. Gainera, bidaiarietako batek telefono mugikorra zuen (gauza oso arraroa garai hartan) eta batzuek familiak lasaitzeko deiak egin zituzten.

Altsasuar batzuek etxeak eskaini zizkieten, besteek mantak, jatekoa... Dendari batzuek galzinetak eta bestelakoak oparitu zituzten, jatekietan deskontuak egin zizkieten. Irurtzunen bi-

**ELURTEA ETA GERO
ALKATEAK
ETZEGARATE BIDEKO
21 KM-AK BIKOIZTEKO
ESKATU ZUEN**

daiari batzuk udaletxean jaso zuten aterpea. Gaua pasatu eta gero jende harri guztiari bazkaria ematea izan zen lehentasuna. Batzuk tabernetan opatu zuten. Haurrak ziren lehentasuna.

Bigarren gaua

Asteazken arratsaldean errepideen egoerak hobera egin zuen. Etzegarateko portuko errail bat zabaldu zuten eta hainbatek euren bidaiari segitzeko aukera izan zuten. Esaterako, Tolosako ikasleak zeramatzen autobusak. Arabarako errepideen egoera eguerdira arte ez zen normaldu eta ordura arte ezin izan zioten berrekin norabide hartan zihozten autobusak. Auto askok ere alde egin zuten. Altsasun aterpetutako mila pertsonetatik gehienek alde egin zuten.

Beste askok, berriz, bigarren gaua pasa behar izan zuten Altsasun. Herrian 1996an zeuden lau gastronomia elkarteak ere buru-belarri aritu ziren laguntzen; Zubeztia, Beti Iaten, Altzania eta Lagun Onak elkarteetan 220 bat pertsonendako afaria prestatu zuten. Gainera, ihotetako torrijak sobratu zirenez, bidaiariak haiek dastatzeko aukera izan zuten. Autobus gehienek euren bidaiari Altsasun bigarren gaua eta gero ekin zioten.

Harro

“Tratua paregabekoa izan da” adierazi zion prentsari Santanderko gazteetako batek, “zuten guztia eman digute; etxeak utzi dizkigute, lo egin, jateko, janzteko, dutxatzeko. Bikainak izan dira” gaineratu zuen beste gazte batek. Kantabriako Gobernuak, telegrama bidez, esker ona adierazi zion Altsasuko Udalarri. Udaletxean telefonoa jo eta jo egon zen; esker oneko deiak izan ziren.

Agirrebengoa alkatea altsasuarren jarreragatik “harro eta pozik” zegoela jakinarazi zion prentsari; “une batzuetan herriarren eskaintzak zeuden premiak baino handiagoak izan ziren”. Hala ere, alkateak prentsa bidez garai hartan indar handia zuen eskaera errepikatuta zuten: Etzegarateko portuko errepidea bikoiztea. “Finlandiatik Cadizera soilik 21 km horiek daude bikoiztu gabe, 14 km pasa Gipuzkoan eta gainontzekoak Nafarroan. Zati hori hobetzeak halakoak errepikatzea eragotziko lukeela uste dut”.

Altsasuarren elkartasunak gobernuaren aitortza du

Larunbat gauean eta igande goizaldean makina bat boluntarioen inplikazioa eskertu du

ALTSASU

Elurteagatik A-1 autobian harrapatutako Nafarroako Gobernuak pertsoneri emandako laguntzagatik, Nafarroako Gobernuak altsasuarra eta herriko agintariak zoriondu ditu.

Baina kritikak ere izan ditu foru administrazioaren jardunak. UPNko Javier Esparzak “gobernuaren aurreikuspen falta eta foru Gobernuaren arduradunen kudeaketa tamalgarria” salatu zuen. Lehendakaritza, Justizia eta Barne kontseilari Maria Jose Beaumonti azalpenak eskatuko dizkiotela jakinarazi du. Aldi berean, Nafarroako Larrialdi Agentzia desegin izana salatu zuen. Esparzak altsasuarra eta laguntza eman zuten talde guztien lana eskertu du.

Geroa Baiko Unai Hualdek txalotu egin zuen 1.400 pertsonari ostatu emateko gaitasuna izan zuen Altsasu herria. **Ahal Duguko** Mikel Buil bozeramaileak elurtearen ondoren altsasuarrek izandako jokabidea goraiatu du.

PSNko Maria Chivitek gobernuaren “kudeaketa oso txarragatik” azalpenak eskatuko ditu, “AEMETek elurragatik alerta gorria zuela jakina” zelako eta errepide nagusietan “kaosa” eragotzi ez zelako.

PPko Ana Beltranek altsasuarren elkartasuna eta lanean aritu ziren erakunde guztien lana nabarmendu du. Nafarroako Larrialdi Agentzia “desagerraraztea akatsa” izan zela gaineratu du.

Nafarroako Gobernuko Barneko zuzendari nagusi Agustin Gastaminzak ukatu egin zuen aurreikuspen falta izan zenik eta larunbatean protokoloa eta baliabide guztiak indarrean zeudela jakinarazi zuen. “Baina batzuetan ezinda eragotzi istripuak gertatzea edo baliabideak gainezka egitea”.



Altsasuar asko agertu ziren laguntzera.



"Izugarrizko elkartasuna egon da Altsasun!"

Herrian harrapatuta gelditu zen jendeak hori ikusi duela uste du Altsasuko alkateak

ALTSASU

Larunbatean lo gutxi egin zuen Javier Ollo Martinez alkateak. Bera bezala, eta altsasuar askoren moduan boluntario lanean aritu ziren Pedro Jimenez Elvira, Jose Luis Moran Fernandez eta Virginia Alonso Aparicio zinegotziak eta Asun Fernandez de Garaialde Sala parlamentaria ere (familia bat jaso zuen etxean). Ollok esan zuenez, "larunbat gauean eta domeka goizean altsasuarrek egin dutena agerian uzteko modukoa da: izugarrizko elkartasuna egon da Altsasun". Lanean aritu zirenen eta etxea eskaini zutenen elkartasuna nabarmendu zuen alkateak.

Etzegarate itxi eta ehunka pertsona Altsasun gelditu behar zirela esanez Guardia Civilaren deia 22:30ean jaso zuen alkateak. "Hortik aurrera erabakiak oso azkar hartu behar izan ziren". Udalaren eta Gobernuaren arteko koordinazioa "nahiko egokia" izan dela uste zuen alkateak. Gurutze Gorriak eta DYAK egin-dako lana ere goraipatu zuen, baita Eroskik atek zabaltzea eskertu ere. "Herri gisa oso irudi ona eman dugu. Gauean jende askok esaten zidan: ea orain gauza hauengatik Altsasuren irudi erreala ikusten den".



Ziordiako mintzakide taldea liburutegian elkartzten da. UTZITAKOIA

Mintzakide programan gero eta jende gehiagok ematen du izena

Euskaraz hitz egiteko sortu diren taldeetan 75 sakandar ari dira eta, oraindik, izena emateko aukera dago

SAKANA

Astean ordu bat. Nahi den jarduera eginez: kafea hartuz, piasiatuz, zinemara joanez, mendi buelta eginez... Nahi den horretan aritu, konpainiarekin. Eta euskaraz. Horixe da Mintzakide programaren martxa. Euskaldunak ezagutzeko, euskaraz hitz egiterakoan segurtasuna hartu nahi dutenak edo ikasketa prozesua belarria eginez edo mihia askatuz osatu nahi dutenak eskaintza da. Dohainik.

Horren berri duten 75 sakandar daude ibarrean barna sortutako taldeetan. Inoizko marka handiena da. Gainera, hiru talde berri sortu dira. Batetik, Arakilgo Astelehen Zoriontsuak taldeak programarekin bat egin du. 2016ko martxotik hilean behin, astelehenetan, bildu izan dira. Sakanatik atera gabe oso bisita interesgarriak egin daitzkeela eta aukera horiek aprobetxatu nahi dituzte.

Altsasun bertako euskalkia sustatzen du Altsun Eskuaz taldeak. Joan den ikasturtean euskalki ikastaroa izan zuten euskaltegian. Aurten, urdiaindar baten laguntzaz, Altsasuko euskara praktikatzera elkartzten dira. Astearen arabera ostegunetan edo ostiraletan elkartzten dira, 20:00etan.

Sortu berri den azken taldea Altsasuko Kaixo tabernan biltzen da astelehenetan, 19:00etan. Altsasuko laugarren Mintzakide taldea da eta hiru partaiderekin abiatu da, euskara praktikatu nahi duten bi pertsona eta la-

guntzeko prest dagoen euskaldun boluntario bat, talde guztietan bezala.

Izen ematea zabalik

Sakanako Mintzakidetik jakinarazi digutenez 11 talde daude gaur egun ibarrean: Arakilen 1, Irurtzunen 3, Arbizun 1, Urdiainen 1, Altsasun 4 eta Ziordian 1. Bakarren batek nahi izanez gero haietan sartu edo talde berria sortzeko aukera da. Horretarako, 600 682 024 telefonora hots egin edo AEK-k Altsasun duen Itsasi euskaltegitik pasa daiteke.

Urdiainera ikastera

Mank-eko Euskara Zerbitzuak, Urdiaingo Udalaren laguntzaz, Urdingo hizkera ikasteko ikastaro praktikoa antolatu du. 14 pertsonak eman dute izena eta bihar hasiko dira Burundako euskalki bizi hori ikasten. Klaseak herriaren etxeko auzoan izanen dira, 11:30etik 13:00etara. AEK-ko Aitor Irigoien izanen da irakaslea. Aste Santura arte larunbatero elkartuko dira, Santa Ageda asteburua kenduta. Izena eman nahi duenak: 948 464 840 edo 948 468 275.



ASTEKOA

MARIAN MENDIOLA BARANDALLA

Greba

Greba hitzaren esanahi jasoa azaltzen hasiko naiz. Greba da pertsona edo talde batek presio soziala egiteko asmoz ekintza bat edo batzuk egiteari uztea, etetea, horren bidez helburu jakina lortzeko asmoz. Aurten ere badugu garaiz aurreikusitako greba bat, feminista, martxoaren 8koa. Mugimendu feministak, aurtengo Martxoaren 8an “planto” egitera deitu du. Lau arlo nagusi izango ditu grebak: lan greba, zaintza greba, ikasle greba eta kontsumo greba. Produktzioa (kalekoa, soldata baten truke egiten dena eta errekonozimendu soziala duena) eta erreproduktzioa (etxekoa, bizitzaren sostengua eta biziraupena bermatzen duten lan-eginkizunak) etetea proposatzen duen greba berritzaile eta sortzaile honi WikiKedadaren batean tokia eman eta orain arte idatzirik ez dagoena jaso beharko da, generoaren bretxa gainditzeko bidean.

Ordungo “Ni una menos, vivas nos queremos” garrasiari segida eman eta erronka berria izanen du aurtengoak, “Guztiok gelditzen bagara, sistema geratuko dugu”. Greba-gonbita emakume guztiontzat luzaturik dago, baina, ez da erraza izanen. Esan bezala kontsumoen greba proposatzen da; zaintza greba; emakume-neskak gauden eremuetan, hots, lan postuetan eta ikasleen gunetan; gaur eguneko eredu ekonomikoak, kulturak eta sozialak, zanpatu egiten gaituelako. Imajina dezakezue zer gerta daitekeen emakumeak gelditu eta “gure” eginkizun guztiak egiteari uzten badiogu? Ni oraindik ez naiz kapaza emakumeok hain erroturik ditugun rol eta eginkizun guztietan “planto” ikusteko. Erronka handi baten aurrean gaude, guzti-guztiok geratzen bagara, sistema geratzen dela erakustarazteko.

GUTUNA

Sakanan prest gaude!

MIKEL OSINAGA (IRURTZUN), MAIDER HUARTE (ARAKIL), GAIZKA UHARTE (UHARTE ARAKIL), OIHANE URIBETXEBERRIA (LAKUNTZA), AIORA BARANDIARAN (ARBIZU), AIERT LIZARRAGA PERUSKI (ETXARRI ARANATZ), EGOITZ URRIZA LAZKOZ (BAKAIKU), SANTI AGIRRE GALARZA (ITURMENDI), IRATI URKIA GALARTZA (URDIAIN), JIORGIO ARIAS SIERRA (ALTSASU), JOSEBA VIZUETE ASKARGORTA (OLAZTI) ETA OLATZ IRIZAR MARTINEZ (ZIORDIA) SAKANAKO SAREKIDEAK

Datorren asteburuan elkartasuna eta maitasuna izanen dira Sakanako jendartean nagusituko diren sentimenduak. Batetik, ohe hutsak oraindik asko direla pentsatzen dugunontzat, gaziak izaten dira pasatu berri ditugun egunak: etxe askotan sumatzen da oraindik hutsunea, eta herritarrona da hutsune hori betetzeko ahalegina; gazitik badu beraz. Bestetik, ordea, gozotik ere badu, elkartasun eta maitasun hori neurtzen baldin

badakigu; eta asko dira herrietan presoen eskubideen alde egiten ari diren ekimenak. Askok ematen du Sakanak elkartasunetik eta asko maitasunetik.

Larunbatean, Bilboko kaleak beteko ditugu berriro ere. Han izanen gara sakandarrok ere, gainontzeko euskal herritarrekin batera ozen esateko gatazkaren konponbidean urratsak emateko prest gaudela, azaltzeko euskal preso, iheslari eta deportatuei etxerako bidea argitzeko prest gaudela, eta, azken batean, aldarrikatze preso, iheslari eta deportatuen afera konponbidean jarri behar dela, elkarbizitzan aurrera egiteko. Sakandarrok ez dugu huts egingen. Beteko ditugu autobusak, joanen gara autoz, saiatuko gara egun batez Sakanako kaleak jendez husten, Bilbokoak betetzeko, kartzelak hustu eta berriz ere

falta direnekin gure bailara betetzeko itxaropenarekin.

Horra iristeko ahalegina ez genuke etsipenez elikatu behar. Zaila izaten da askotan! Zenbateko zama duen motxilak! Igandean badugu horretarako ere hitzordua Etxarrin. Zama hori arintzeko sortu zen “Zama doinu arindu” elkartasun jaialdirako bueltatuko gara Bilbotik Sakanara. Larunbateko elkartasun, maitasun, indar eta ilusio hori doinu jantziko dugu igande arratsaldean. Espetxe politika anker eta krudel honek sortzen dituen ondorioei aurre egiteko, eta, azken finean, senide eta lagunei elkartasuna emateko ekimen gisa aurkeztu genuen jaialdiak hirugarrenenez emanen digu horretarako aukera.

Eta, bai! Larunbatean Bilbon egingen dugun bezala, Etxarrin ere izanen gara igandean sakandarrok. Askok ematen duelako Sakanak elkartasunetik eta asko maitasunetik! Orain presoak!

HARA ZER DIEN

Arazo telefonikoak

IRATXE KONTSUMITZAILEEN ELKARTEA

Iratxek aurten telefoniari buruz jasotako 4.500 kasu baino gehiagoren artean, arazo ohizkoenak hauek dira: gehiegizko fakturak, tarifakazio gehigarriko zerbitzuen kobrantza, baimenik gabeko altak edo neurritz kanpoko penalizazioak.

Kontsumitzaileak zuzenak ez diren fakturak ikusten ditu, gehiegizkoak edo okerrak direlako. Batzutan, enpresak ez ditu kontratatutako prezioak ezarri eta, orokorrean, erreklamatu zuzendu egiten dira. Bestetan, ordea, adostasun eza kontsumitzaileak zerbitzua

kontratatu zuenean adostutako tarifak benetan ezagutzen ez dituelako sortzen da.

Kontsumitzaileak kontratatu ez dituela esaten duen ordaindu beharreko zerbitzuak. Zerbitzu bakoitzaren baldintzak begiratu beharko dira. Zerbitzu arruntak batzutan kontsumitzaileari oharkabean pasatzen zaizkio. Tarifakazio gehigarrikoetan, kontsumitzaileak eskubidea du

zerbitzu horiei dagokien fakturaren zatia ez ordaintzeko, baimenik eman ez badu horiek kontratatzeke. Eskubidea du ere hornitzaileari zerbitzuaren deuseztapena eskatzeko.

Kontratua egin eta gutxira koberturarik ez dutela ohartzen dira eta zerbitzua kasik ezin dutela erabili.

12 euroren orde 300 euro, iraunkortasun okerragatik. Sarritan, penalizazio hau

erabiltzen da bezeroek alde egin ez dezaten eta era okerrean ezartzen da. Ohizkoa da konpainiek penalizazioa osotara kobratzea, baita baldintzak bukatzeko hamabost egun soilik gelditzen zaien bezeroentzat. Horrela, tratatutako kasu batean adibidez, 300 euro kobratu nahi dute, bidezkoa 12 euro denean.

guaixe

SAKANAKO ATEKARIA

www.guaixe.eus

Koordinatzailea:
Goizeder Anton Iturralde
fundazioa@guaixe.eus

Diseinu zerbitzua:
GK, Ainhoa Etxeberria Pikabea
gk@gkomunikazioa.eus

Administrazioa:
Gixane Andueza Golkoetxea
admin@guaixe.eus

Kolaboratzaileak:
Leyre Mateos Galarza
Zuzentzailea:
Felix Alzelai Iriarte

Lege gordailua: NA-633/1995
Tirada: 3.200

LAGUNTZAILEAK

Mank

s a k a n a

BAZKIDEAK



Nafarroako Gobernua
Gobierno de Navarra

Organikoaren garaia iritsi da Altsasura

Bosgarren edukiontzia bidez, edukiontzi marroiaren bidez, materia organikoa biltzen hasiko dira astelehenean. Sakanako Mankomunitateak eta Altsasuko Udalak hiri hondakinen gaikako bilketa % 65 izatea nahi lukete

ALTSASU

Sakanako Mankomunitateko Hondakinen Zerbitzuko hezitzaileen deia jaso dute aste honetan Altsasuko 294 etxetan. Guztiek ere sortzen dituzten hondakin organikoak bosgarren edukiontzia bidez kudeatzeko izena eman dute eta deia horretarako materiala jasotzera joateko izan da. Iortia kultur gunean da hitzordua. Atzo eta astelehenean egonen dira, 10:00etatik 14:00etara eta 16:30etik 19:30era.

Bosgarren edukiontzia erabiltzeko izena eman dutenek materia organikoa egoki banatzeko sorta bat jasoko du: 10 litroko kubo aireztatua (hainbat ikerketen arabera, usaina ekiditeko hoberena), poltsa konpostagarriak, edukiontzia irekitzeko giltza eta hondakinak ongi sailkatzeko gida berria.

Bai atzo bai astelehenean Hondakin Zerbitzuko hezitzaileek altsasuarrei argituko dizkiete



Organikoa bereizteko sorta jasotzen. Astelehenean lortian eman daiteke izena.

edukiontzi marroiaren inguruan izan ditzazketen zalantzak.

Funtzionamendua

Etxean sortutako materia organikoa, usteldu daitekeena, jaso egin beharko da. Horretarako

emanen diete pertza bana eta poltsa konpostagarriak. Izan ere, edukiontzira materia organikoa poltsa konpostagarrietan bota behar da.

Behin poltsa beteta, nahi denean, edukiontzira eraman

beharko da. Hura giltzarekin zabaldu eta materia organikoko poltsa, korapiloz itxita, bertan sartu ondoren, edukiontzia berriro itxi egin beharko du erabiltzaileak.

240 litroko 140 bat edukiontzi marroi dira Altsasuko kaleetan Mank-eko langileek jarriko dituztenak. Metalezko poste batzuetara lotuta egonen dira. Haiek gaur egun dauden edukiontzien ondoan jarriko dituzte. Mank-eko Hondakin Zerbitzuak astean hirutan jasoko du materia organiko hori: astelehenean, ostegunetan eta larunbatetan. Edukiontzi marroiko aurreneko bilketa ilbeltzaren 18an, heldu den ostegunetan egingen du.

Data hurbildu ahala, gero eta jende gehiagok eman du izena. Eta "behin edukiontziak kalean jarrita eta auzokideak edukiontziak erabiltzen ikustean altsasuar dezente izena ematea espero dugu". Beñat Agirre Bengoetxearen hitzak dira, Hondakin Zerbitzuko hezitzailea da.

Birziklatzean saltoa

Gaika hondakinen % 27 besterik ez da birziklatzen Altsasun. Atez ateko sistema duten herrietan % 80koa da. Mank-ek eta udalak urte akaberarako % 65era iritsi nahi dute. Eta hondakin organikoa egoki bereziz gero helburua lorgarria dela dio Agirrek: "etxean sortzen den hondakinen erdia organikoa da ia. Materia organikoa berei-

zi gabe ezinezkoa da birziklatze tasa altuak lortzea. Organikoa banatuta asko igotzen da birziklapen tasa". Jarritako helburua lortzeko Altsasun dauden 3.767 etxebizitzetatik 2.260k izena eman beharko lukete (% 60).

Arrazoiak

Hondakinak bereizteko lege, ekonomia eta ingurumen argudioak daudela azaldu digu Agirrek. "Ingurumenekoa argi dago, planeta bakarra dugu eta ahal den heinean zaindu behar dugu. Zenbat eta gehiago birziklatu eta berrerabili, denondako hobe". Bestetik, Nafarroako legean materia organikoa banatu beharra gogorarazi du. "printzipioz orain boluntarioa da, baina heldu den urtetan derrigorrezkoa izanen da. Orduan, zenbat eta lehenago pausoa eman, etorkizunean arazo gutxiago". Azkenik, ekonomiar dagokionez, "Nafarroako Parlamentuan lege berria eztabaidatzen ari dira. Hondakindegira joaten den zaborrari tasa bat jarriko zaio. Beraz, hondakindegira zenbat eta gutxiago eraman orduan eta gutxiago pagatuko dugu herritarrek eta Mank-ek".

**IZEN EMATEA
DOHAINIK DEN
900 730 450
TELEFONORA HOTS
EGINEZ EGIN DAITEKE**

ALBUMAK KONTATZEN IKASTEKO LANTEGIA

0-8 urte bitarteko haurrak dituzten GURASO, ZAINZAILA, IRAKASLE, IRAKASLE-GAI, MONITORE eta LIBURUTEGIKO ARDURADUNEI ZUZENDUA.



Pello Añorga idazlearen eskutik

Urtarrilaren 27an, larunbatarekin, 10:00etatik 13:30era. Olaztiko liburutegian.

Lantegian parte hartu nahi dutenek izena eman beharko dute aldeaz aurretik euskara1@sakana-mank.eus helbidean. Tokiak mugatuak izanen dira. Matrikula 10 eurokoa izanen da.

Bertratzen direnek aukera izango dute albumak aukeratzen eta erabiltzen ikasteko haurren liburuekiko harreman afektiboa sortzeko txiki-txikitatik.

Antolatzailea:

Laguntzailea:

Mank
s a k a n a



Txori erakusketa eta trukaketa, bigarrenenez

Olatzagutiko frontoiak bigarren urtez jarraian hegazti hazleak bilduko ditu. Euren txoriak erakutsi eta, interesa izanez gero, trukatu egingen dituzte beste hazleekin. 09:00etatik 14:00etara ikus daitezke txoriak eta haien hazleekin hitz egin

OLATZAGUTIA

Igandean mota guztietako txoriak ikusteko aukera izanen dugu Olatzin. Hain zuzen ere, Aralar Mendia Ornitologia elkarteak eta Olatziko Udalak II. Txori Erakusketa-Trukaketa antolatu dute. Olatziko tabernak biltzen dituen Infernuerreka elkartearen, Agricola Corellanaren eta Txartelen babesak izan dute.

Txori hazleek euren txori preziatuenak ekarriko dituzte, eta haiek erakusteaz gain, beste hazle batzuekin trukaketak egiteko aukera izanen dute. Antolakuntza lanetan ibiliko dira Sergio Flores eta Raul Lopez "Patxu", besteak beste, baina erakusketa-trukaketan ere bere txoriak erakutsiko dituzte. Patxuk zaletasunarengatik hezten ditu txoriak, kanarioak bereziki. Hazle ona da, hainbat sari lortu baitituzte haren txoriek.

Txoriarena mundu oso konplexua da. 500 espeziezik gora daude. Aurreko urtean ere ornitologia



Joan den urtean jendea elkartu zen.

erakusketa egin zuten Olatzin eta oso arrakastatsua izan zen, jende asko pasa zen bertatik eta 39 txori hazleek ekarritako kanarioak, txorru arruntak, agaporniak, loroak, diamante de gul delakoak, txolarreak eta

beste ikusteko aukera polita izan zen. Txorien trukaketa ere handia izan zen orduan. Igandean atzera ere topaketa txukuna egitea dute helburu, eta sakan-darrak bertatik pasatzea gonbidatu dituzte, txorien mundua gertutik ezagutzeko.

Patxuren berderoi batek urrezko saria jaso du Iruñean

Nafarroako Ornitologia Erakusketa-Lehiaketa jokatu zen Eguberrietan Burlatan. Tartean Lopez olatziarrak 5 txori eraman zituen. Epailleek bertara aurkeztutako ia mila txori aztertu ikuskatu eta epaitu zituzten. Atzera ere aipatu txapelketatik sari borobilarekin itzuli zen olatziarra, bere kanario isabela berderoi edo txirriskila batek Nafarroako Txapelketako txori onenaren saria jaso baitzuen bere kategorian. Aurreko urtean bi urrezko izendapen, bi zilarrrezko eta brontzezko bat jaso zituen.



**ZURE
NEURRIRA
EGINDAKO
BIDAIK**

Apaolaza Autobusak
943.72.48.10

info@autobusesapaolaza.com
www.autobusesapaolaza.com

ESKUORRIAK
KARTELAK
PEGATINAK
PUBLIZITATEA
LOGOAK
KAMISETAK

JARRI KOLOREA
NEGU TXURIARI

gk
KOMUNIKAZIOA



Igandea hilaren 14a da eta auzia gogoratzeko, 18:00etan txokolate jana Gure Etxean..

Epaiketarako 95 egunen faltan, ekimenek aurrera

Altsasukoak Aske herri plataformak antolatutako *Altsasu, eskubide eta askatasun demokratikoak jokoan* erakusketa ikusgai egon da Altsasun eta hemendik aurrera herri eta hiri desberdinetara eramango dute, baita Europara ere

Altsasuko Auziak zifra gordinak uzten jarraitzen du. Esaterako, gaur 424 egun preso beteko dituzte Oihanek, Adurrek eta Jokinek. Eta beraien eta Ainararen, Jonanen, Julenen, Aratzen eta Iñakiren kontrako epaiketarako 95 egun falta dira.

Altsasuko ferietako liskarraren ondotik martxan jarritako auzibideari erantzuna emateko, makina bat ekimen eta egitasmo burutu dituzte Altsasukoak Aske herri asanbladak eta Altsasuko Gurasoak taldeak, besteak beste. Tartean, Altsasukoak Aske herri asanbladak *Altsasu, eskubide eta askatasun demokratikoak jokoan* izeneko erakusketa musu zuen Altsasuko Iortia Kultur

Gunean, abenduaren 30ean. "Erakusketa honek Oihan, Jokin eta Adur gure lagunak atxilotu zituztenetik azkeneko 14 hilabeteetan gauzatu diren gertaera garrantzitsuenak biltzen ditu" azaldu zuen herri asanbladako ordezkari Itziar Perez Argomanizek.

Aipatu erakusketa ibiltaria da. Iortia kultur gunean egon zen ikusgai ilbeltzaren 5era arte, baina helburua herri eta hiri desberdinetara eramatea da, "baita Europara ere, pairatzen ari garen egoera salatzeko eta datozen hilabete erabakigarrietarako konpromisoak lortzeko" gaineratu zuen Perez Argomanizek. Erakusketan 11 argazki

handi bildu dira, azken hilabeteetako momentu gakoak erakusten dituztenak, eta Altsasuko Auziaren momentu giltzarri horien azalpenak. Horrekin batera, bideoak eta kartelak ere daude ikusgai.

Epaiketaren zain

Apirilaren 17an hasiko da Altsasuko gazteen kontrako epaiketara, Madrilgo Auzitegi Nazionalan. Fiskaltzak 375 urte eskatu ditu. "Izugarrikeria galanta pairatzen ari gara, oinarritzko printzipio demokratikoak dituen edonork onartu ezin duena" nabarmendu zuen Perez Argomanizek. Altsasukoak Aske herri asanbladako kideak gaineratu

zuen "edozein tokitan goizaldeko bostetako liskartzat hartzen dena, Altsasun, ordea, terrorismo antolatua" dela, eta aipatu zuen ez dagoela soilik euren lagunen askatasuna jokoan, guztion askatasun demokratikoa baizik. "Horregatik, askatasun demokratikoa eskatzen dugu, biltzeko askatasuna, adierazpen-askatasuna, mugitzeko askatasuna... bizitzeko eta izateko askatasuna exijitzen dugu".

Bukatzeke, eskerrak eman zizkien Altsasuko herritar, elkarrekin zein aniztasun handiko taldeei, "pertsonek guztion lanari esker manipulazioari eta estatuaren estamentu boteretsuei aurre egiten ari garelako".

Gurasoak

Altsasuko Gurasoak taldetik Bel Pozuetak hartu zuen hitza. "Erakusketa honen bidez herri bezala egin duguna ikustea zorabiarria da, eta, aldi berean, harrotzen gaitu" aitortu zuen. Pozuetak adierazi zuen "sufritzen ari garela, baina sufrimendu honek indarra sortarazi digula, Iruñara, Madrilera, Bartzelonara, Bruselara eta Euskal Herriko herri guztietara joateko, gure errealitatea pertsona desberdinekin partekatuz". Bilkura guztietan elkartasuna jaso dutela ere azpimarratu zuen.

"Epaiketako eskaerak bidegabekoak eta krudelak izateaz gain, inolako berme juridikorik gabe planteatuta daude. Gure seme-alabendako ez da inoiz errugabetasun-presuntziorik egon eta soilik Guardia Zibilaren eta euren akusazioaren bertsioa hartu da kontuan. Batetik animatuta gaude, honi guztiari aurre egiteko gogoz, baina, aldi berean kezkatuta, datorrena oso serioa delako" gaineratu zuten.

Sakanako batua ikastarorako plazak daude

Koldo Zuazok emanen du hilaren 24an eta 31n, 15:00etatik 16:30era Mank-en egoitzan

SAKANA

Sakanako batua edo ibarreko euskara estandar lokalaren ezaugarriak ikasi nahi dutenendako ikastaroa da Sakanako Mankomunitateko Euskara Zerbitzuak antolatu duena. Izena ematen dutenek Sakanako batuaren ezaugarriak ezagutzeko aukera izanen dute. Koldo Zuazo Euskal Filologian doktorea eta hizkuntzalari da saioak emanen dituen. Zuazok dioenez, "egokiago litzateke Euskal Herriko eremu bakoitzean, bertako hiztunei zuzendutako ahozko eta izkribuzko jardunetan, bertako hitzak, esapideak eta bereizgarri fonologiko, morfologiko eta sintaktikoak kontuan hartzea. Herri edo eskualde jakin bateko eskola, administrazio erakunde, hedabide, eta era guztietako ohar, mezu eta iragarkietan hiztunen gertuko hizkera erabiltzea litzateke zentzuzkoena".

Sakanako Mankomunitateko Euskara Zerbitzuak antolatu du ikastaroa eta irakasleei, hezitzaileei eta interesa duen edonori zuzenduta dago. Hilaren 17ko eguerdira arte eman daiteke izena 948 464 840 telefonoan edo euskara2@sakana-mank.eus e-postan. Sakanako batua ikastaroa doakoa da.



Amaya
Okindegi-gozotegia

Lantegia: Teileria Aldapa S/N
Altsasu
948 562 205

BM-supermerkatua

Araia (Araba)
945 314 572

Olazti
948 468 755

Etxarri-Aranatz
948 461 660

San Juan kalea, 50
Altsasu
670 389 017

Otadiako Kristo
Deuna Plaza, 19
Altsasu
948 562 185

Zumalakarregi Plaza
Altsasu
T. 948 468 026



Argi Bidea elkarteko kideak eta izandakoak urteurreneko irudia aurkezten. UTZITAKOIA

Argi Bidea gazte elkartearen mende erdia ospatzeko prest

Arbizuko Gazte Asanbladak urte guztian barna ekitaldiak antolatzen dituzte. Arbizuko Gazte Asanbladak urte guztian barna ekitaldiak antolatzen dituzte.

ARBIZU

Logotipoa lehiaketa bidez aukeratu, *Bost hamarkada milaka taupada* leloa lagun duela. Horiek zehaztuz hasi dute urtea Arbizuko Gazte Asanbladako kideek. Izan ere, Argi Bidea gazte elkarteak 50. urteurrena beteko du aurten. Elkarteak 1968az geroztik "Arbizuko gazteendako erreferentzia esparru garrantzitsua bihurtu da. Hamaika belaunaldi pasa dira elkartetik eta haiek bakoitzak azterna utzi du bertan". Hala azaldu zuten larunbatean egindako agerraldian.

Azaldu zuten, "mende erdia betetzen dugun honetan denon artean eraikitako ibilbidea gogora ekarri nahi izan dugu. Ezin dugu aipatu gabe utzi garai hartan sorturiko gazte elkartearen urteetako antolakuntza eta lanaren ondorioz harturiko izaera iraultzailea". Argi Bidean "modu asanblea-

rioren antolatu eta autogestioaren bidez aurrera" egin dutela nabarmendu dute. Zehaztu zuten, "sistema kapitalista eta patriarkalak inposatzen digun bizi ereduaren baita aitorzen zaigun aisialdirako eskaintza alienatzaileari aurre egiteko makina bat proiektu zain proposamen garatu ditugu".

Gogorazi zuten elkarteak "herri-eritiko eta herriarendako makina bat ekimen antolatzen" ari dela. Eta haiek zerrendatu dituzte: Olentzero, haurrendako film emanaldiak, hitzaldiak, prestakuntza saioak, gazte egunak, dokumental emanaldia eta beste. "Horregatik, gaur egun Arbizuko Argi Bidearekin gabe ez dugu ulertzen". Ospatzeko "asko" dutela eta gogoz daudela aitortu eta gero dagoeneko "hainbat ekimen" prest dituztela jakinarazi dute, baina proposamenak "gogotsu" hartuko dituzte.

Emakumeen kontrako indarkeriatik bi altsasuar atxilotuta

Foruzaingoak jakinarazi duenez, bi gizonen kontrako altsasuar atxilotu zituzten abendu azken aurreko astean. Lehena 18 urteko gaztea da eta bere bikotekide ohia jo eta mehatxatzeagatik atxilotu zuten. Foruzainek herriko erdialdeko kale batean bikote bat eztabaida bizia zuela gaztigatuz deia jaso zuten. Haiek iritsi zirenean biekin elkarrizketatu ziren. Emakumezkoa, lekukoak lagun zituela, polizia-etxera joan zen salaketa jartzera.

Atxilotutako beste gizonen kontrako altsasuarrek 31 urte ditu. Berri familia barruan tratatu txarrak ematea eta kautela-neurria urratzea leporatu diote. Foruzainek egiaztatu zuten gizonen kontrako bikotekide ohiarengandik urrun egoteko agindua ez zela betetzen ari. Horregatik, atxilotu eta epailearen aurrera eraman zuten.

Sexu erasoak edo tratatu txarrak pairatzen dituztenek 112 telefonora hots egin dezakete eta protokoloa indarrean jarriko dute.



Altsasuko alkatea mehatxatzeagatik 8 hilabeteko zigorra

Iruñeko Zigor-arloko 1. Epaitegiak Valladolideko A.C.G.-ri 8 hilabeteko espetxe zigorra ezarri dio. Gizon horrek Javier Ollo Martinez "beldurtu nahian", alkatea iraindu eta heriotza mehatxua egiten zion e-posta mezua bidali zion 2016ko lastailaren 15ean, ferietako liskarra ren ondoren. Ollok mezua jaso eta gero Foruzaingoan salaketa ezarri zuten.

Auzipetutako gizonak instrukzio epailearen aurrean onartu egin zuten mezua bidali zuela. Epaian jaso denez, auzipetuak "damu apur bat" adierazi zuten.

Presoen eskubideen alde, Sakanatik Bilbora

Jendarteari deia "giza eskubideen defentsan, ebazpen eta bakean bustitzeko"

SAKANA

Elkarrekin aurrera egiteko prest gaude lelopean Sarek euskal presoen eskubideen aldeko manifestazioa egingen du larunbatean, 17:30ean, Bilbon. Sakanatik hitzordu horretara joateko autobusak antolatu dira eta asko izanen dira euren ibilgailuak hartu eta Bizkaiko hiriburura-ko norabidean jarriko dituztenak.

Mobilizazioaren antolatzaileek biharkoa "bake eta ebazpenaren alde egiten duen gizartearen isla" izatea nahi dute. "Gatazkaren ebazpena bideratzen duen hori Euskal Gizartea izatea ezinbesteko ikusten du" Sarek. Horregatik, euskal gizarteari dei egin dio: "Giza eskubideekiko babesa denoi dagokigu; gizarte batek ezin du aurrera egin baldin eta guztioi dagozkigun giza eskubide horiek urratzen badira. Izan ere, guk, gure bizipen eta esperientziak medio, inork baino hobeto dakigu egoera honi amaiera eman behar zaiola, eta guztiok batera aurrera egitea proposatuz gero, lortzea badagoela".

ETAren armagabetzearen ondoren, Saretik adierazi dute "eszenatoki eta momentu berri batean" gaudela. Horren adierazle liraterke Frantziako Gobernuak "gaurko espetxe politikari irtenbide emateko pausuak ematen" aritzea eta Hego Euskal Herriko parlamentuetan "emandako gehiengoek, horren inguruan akordio berriak lortzea eta pausuak ematea bideratzen dute".

Saretik azaldu dutenez, "inori ez diogu bortizkeria desberdinek eragindako mina ahazterik eskatzen, baina etorkizunari begiratu eta aurrera egiteko eskatzen dugu, guztion artean, mende eta gorrotorik gabeko gizarte bat eraikitzeko". Horregatik, "presoen jaso zuten dituzten eskubideen urraketei akabera ematea ezinbestekoa da.

Ikuskizun baten aurkezpena Josefina Arregi klinikan

Igandekoa arratsalde desberdina izanen da Josefina Arregi klinika psikogeriatrikoan. Iruñeko Ortzadar taldeak eta momotxorroek elkartasun ikuskizun bat aurkeztuko dute, maiatzaren 26an Iruñeko Gaiarre antzokian emanen dutena. Aurkezpen ekitaldia irekia da eta nahi duen guztia joan daiteke ikuskizuna ezagutzera.

Sakanako gazte asanbladen mintegiek segida izan dute

Ibarreko gazte asanbladek antolatuta Ziordiak Sakanako gazte eguna hartu zuten azaroaren 11n. Han lana, feminismoa, euskara eta errepresioari buruzko mintegi bana izan zen. Eta han abiatutako ildoak eguberrietako oporretan garatu dituzte Altsasun, Arbizun eta Iturmendin egindako bileretan.

Isun moduan heldu den "ekonomia-errepresioa" salatua

Altsasuko isunen taldeak "adierazpen askatasun eskubidea gauzatzeko herriak Estatu Espainolaren eskutik jasaten ari dituen erasoak" salatu ditu. Izan ere garagarria akaberatik 11 isun jaso dituzte altsasuarrek, 4.000 euroko balioa dutenak. Taldetik jakinarazi dutenez, azken 7 urteetan "isun politikoetan" 45.000 euro inguru eskatu dituzte.

Taldeko kideen iritziz, "buro-errepresioa edo ekonomia-errepresioa herria isilarazteko beste arma bat besterik ez da". Azaldu dutenez, "herri mugimenduak bere denbora diru hori lortzen ematen du, bakoitzak bere lanketa egin beharrean". Isun gehienak gazteek jaso dituztela gaztigatu dute. Taldearendako horrek "agerian uzten du herri mugimendua eta herria bera itzali nahi dituztela". Azkenik azaldu dute "isun politikoak" jasotzen dituztenek laguntza eske isunak-altsasu@gmail.com e-postara jo dezaketela.

BILTOKI
TABERNA • JATETXEA

**Pintxoak
Bokatak
Plater konbinatuak
Karta**

Astelehenetik ostiralera
Eguneko menua
9€

Asteburuetan
Menu berezia 25€

948 467 876 • Altsasu

asi
arreta eta orientazio
psikologikorako zentrua

Arantxa Sueskun Igoa
**PSIKOLOGOA
PSIKOTERAPEUTA**

Elkargokide-zk.: N-0806

Urbasa kalea 15, behea
31800 - Altsasu (Nafarroa)
669 367 422

Laugarren urtez biztanleak galdu

2017ko ilbeltzaren 1ean 20.185 pertsona bizi ginen ibarrean, 2016ko egun berean baino 70 gutxiago. % 0,34ko jaitsiera izan da. Azken lau urtetan 624 biztanle gutxiago dauden Sakanan, % 2,99ko jaitsiera



2013tik Sakana populazioa galtzen joan da.

Sakanako biztanleriaren garapena 2016-2017

Herria / Urtea	2017			2016			2017-2016 aldea		
	Gizon	Emak.	Guztira	Gizon	Emak.	Guztira	Guztira	Gizon	Emak.
Altsasu	3.741	3.678	7.419	3.773	3.698	7.471	-52	-32	-20
Arakil	492	455	947	490	462	952	-5	2	-7
Arbizu	566	553	1.119	569	548	1.117	2	-3	5
Arruazu	53	48	101	57	49	106	-5	-4	-1
Bakaiku	181	164	345	183	166	349	-4	-2	-2
Ergoiena	214	185	399	216	183	399	0	-2	2
Etxarri Aranatz	1.280	1.184	2.464	1.277	1.179	2.456	8	3	5
Irañeta	95	79	174	97	79	176	-2	-2	0
Irurtzun	1.129	1.054	2.183	1.125	1.062	2.187	-4	4	-8
Iturmendi	205	193	398	206	192	398	0	-1	1
Lakuntza	655	607	1.262	658	605	1.263	-1	-3	2
Olatzagutia	781	737	1.518	786	736	1.522	-4	-5	1
Uharte Arakil	435	393	828	438	396	834	-6	-3	-3
Urdiain	354	317	671	356	315	671	0	-2	2
Ziordia	185	172	357	184	170	354	3	1	2
Sakana	10.366	9.819	20.185	10.415	9.840	20.255	-70	-49	-21

SAKANA

Sakanak populazio errekorra 2013an lortu zuen. Urte hartan 20.809 pertsona zeuden ibarrean bizitzen. Ordutik biztanleria galdu besterik ez du egin ibarrak. Hasieran erritmo bizian, motelago azken bi urteetan. 20.185 biztanle horietatik 10.366 gizonezkoak dira, % 51,35. Gainontzeko 9.819ak emakumezkoak dira, % 48,64. Aurreko urtearekin alderatuta apenas egon da aldaketarik. Udalerri guztietan gizonezko gehiago dago emakumezkoak baino.

Herriak

Ibarreko hamabost udalerrietatik bederatzietan biztanleria behera egin du, hirutan gora eta beste hirutan berdin man-

tendu da. Azken horiek Ergoiena, Iturmendi eta Urdiain dira. Populazioak gora egin du Arbizun (2 biztanle gehiago, % 0,17 gehiago), Etxarri Aranatz (8, % 0,32) eta Ziordian (3, % 0,84). Biztanle gutxiago duten herriak honakoak dira: Altsasu (52 biztanle gutxiago, % 0,69ko jaitsiera), Arakil (-5, % 0,52), Arruazu (-5, % 4,71), Bakaiku (-4, % 1,14), Irañeta (-2, % 1,13), Irurtzun (-4, % 0,18), Lakuntza (-1, % 0,07), Olatzagutia (-4, % 0,26) eta Uharte Arakil (-6, % 0,71). Populazioa galtzen duten herrien artean hiruk errepikatzen dute: Irurtzunek, Arruazuk eta Altsasuk.

Hamarkada bateko alderaketa

2017ko biztanleria datuak 2007koekin alderatzen baditu-

gu Sakanak hamar urtetan 99 biztanle irabazi dituela ikusiko dugu, % 0,49ko igoera. Hamarkada horretan 10 udalerrietan igo da populazioa: Arakil (40 herritar gehiago, % 4,41 igoera), Arbizu (98, % 9,59), Bakaiku (7, % 2,07), Etxarri Aranatz (14, % 0,57), Irañeta (18, % 11,53), Iturmendi (18, % 4,73), Lakuntza (132, % 11,68), Uharte Arakil (54, % 6,97), Urdiain (66, % 10,9) eta Ziordia (28, % 8,51).

Hamar urteren pasa eta gero herritarrak galdu duten udalerriak 5 dira: Altsasu (108 biztanle gutxiago, % 1,43ko jaitsiera), Arruazu (-3, % 2,88), Ergoiena (-27, % 6,33), Irurtzun (17, % 0,77) eta Olatzagutia (-221, % 12,7).

Sakanako biztanleriaren garapena, urteka. (ilbeltzaren 1eko datua, ine.es)


Urtea	Guztira	Gizonezkoak	Emakumezkoak
1996	19.052	9.791	9.261
1997			
1998	18.990	9.757	9.233
1999	19.104	9.815	9.289
2000	19.164	9.875	9.289
2001	19.392	10.023	9.369
2002	19.677	10.198	9.479
2003	19.832	10.287	9.545
2004	19.862	10.310	9.552
2005	20.002	10.380	9.622
2006	20.028	10.407	9.621
2007	20.086	10.430	9.656
2008	20.447	10.625	9.822
2009	20.652	10.686	9.966
2010	20.805	10.749	10.056
2011	20.776	10.732	10.044
2012	20.768	10.713	10.055
2013	20.809	10.701	10.108
2014	20.504	10.522	9.982
2015	20.307	10.422	9.885
2016	20.255	10.415	9.840
2017	20.185	10.366	9.819

2.587 nafar gehiago

2016an bezala, 2017an ere Nafarroaren biztanleria igo egin zen, zehazki, 2.587 pertsona; % 0,4 igoera. 2017eko ilbeltzaren 1ean Nafarroan 643.234 pertsona bizi ziren. Haietatik 324.563 emakumezkoak ziren, % 50,45;

aurreko urtean baino 1.756 gehiago eta 318.671 gizonezkoak, % 49,54; aurreko urtean baino 831 gehiago.

Sakandarrak Nafarroako populazioaren %3,13 gara, aurreko urtean baino % 0,03 gutxiago.



AHTko Iruñea-Gasteiz lotura Sakanan barna

Proiektua urtea bukatu aurretik onartu nahi lukete. Sustapen Ministerioak orain informazio publikorako aldia zabalduko du, alegazioak aurkezteko. Horiek erantzun ondoren, Ingurumen Ministerioak ingurumenaren gaineko azterketa eginen du

SAKANA

Nafarroako eta Euskal Autonomia Erkidegoko (EAE) Abiadura Handiko Trenen (AHT) lotura Sakana puntarik-punta zeharkatuko duen ibilbidearen bidez eginen da. Hala jakinarazi zuen Sustapen ministro Iñigo de la Sernak asteartean. Hark azaldu zuenez, orain informazio publikorako epea zabalduko da. Herriarrek hilabete izanen dute alegazioak aurkezteko eta erakundeek, berriz, bi hilabete. Behin alegazioak jaso eta gero, ministerioak bi hilabete izanen ditu haiek erantzuteko.

Tramite horren ondoren dokumentazioa Sustapen Ministe-



Alvia tren eta erregionala Etxarri Aranazko geltokian.

riotik Ingurumenekora pasako da, ingurumenaren gaineko azterketa egin dezan. Halako azterketak tartean direla, ministroa ez omen da datak ematearen zale, “txosten berriak eska ditzakeelako”, baina urtea horretan joan daitekeela gaztigatu zuen.

Aukerak


Sustapen ministerioak bost ibilbide zituen aukeran eta haietako bi baztertu egin ditu: E eta F aukerak. Bietan ere AHT ibilbidea Arakilera sartzen zen eta Aralar mendia zeharkatzen zuten EAEko linearekin Beasainen eta Tolosarekin lotzeko. Proposamen horiek 1997koak dira eta baztertu dituzte Aralar mendian “geoteknika eta ingurumen arriskuak” ikusi dituztelako eta bi lineak lotzea teknikoki ez delako posible. Hiru administrazioak 2011ko otsailean sinatutako protokoloaren ondoren linean Ezkion edo Gasteizen lotzeko aukerak sortu ziren.

Bi hiriburuen arteko ibilbidea modernizatzea ere aztertu du ministerioak: trenbidea bikoiztea, 25 KVko elektrifikazioa eta

abiadura homogenea lortzeko ibilbidean aldaketak egitea. Baina aukera hori ere atzera bota du, “ibilbide irizpideek ez dutelako ahalbidetzen bidaia denbora egokiak lortzea”. Horrekin batera, “gaitasuna galtzen da eta etorkizuneko linearen mantentze operazioa izugarri zailtzen da”.

Horregatik, bi H eta V aukeren artean erabaki beharra zuen ministerioak. Lehenengoan AHT ibilbideak Lakuntza parean iparralderantz joko luke eta Aralar mendia lurpetik zeharkatuko luke eta horrela Ezkiora iritsiko litzateke. Horrek alde du ingurumenaren gaineko eragina txikiagoa duela. Baina kontra kostu handia duela, tunel luzea egin behar dela (arrisku geoteknikoak egon litezke) eta zubi ugari egin behar dira.

**MINISTERIOAK
IBILBIDE POSIBLEA
AURKEZTU DU, BAINA
EZ DU LANAK EGITEKO
DATARIK EMAN**



Bigarren aukerak, berriz, Sakanako puntatik puntara zeharkatzea du. Eta Sustapen Ministerioak horren alde egin du honako arrazoiengatik: ibilbide gehiena lur gainean delako eta horrek lanak asko errazten dituelako; lanak merkeagoak direlako; funtzionala delako eta linearen esplotazioagatik. Kontra du ingurumenean eragin handiagoa duela. Hala ere, Eusko Jaurlaritzatik adierazi duteenez, Ezkioko aukera "oraindik" ez dute "bartzertzen".

Ibilbidea

Ministerioak aztertutako bi aukeretan hasierako zatia, Irurtzongo saihesbidea, berdina da. 11 km-ko luzerako ibilbidea da eta haietatik 3,8 Bizkaia mendia azpitik zeharkatzeko tunela lirateke. Egungo tren ibilbidearekin alderatuta 3 minutu azkarrago egingen luke bidea trenak. Aurrekontua, berriz, 194 milioi eurokoa litzateke, BEZa kanpo.

Aukeratutako ibilbidean trenbidea tuneletatik atera eta Errotz mendebaldetik pasako litzateke. Izurdiaga hegoaldetik Arakil gainetik pasa ondoren Etxarre-

nerantz joko luke, Sakanako Autobiaren (A-10) parera. AHTren linea ibarraren hegoalde-tik, autobia-aren paretetik, Etxarri Aranatzerraino joanen litzateke. Bakaikun, Iturmendin eta Urdiainen egungo trenbidearen eta herrien arteko espaziotik joanen zen. Altsasu parean, berriz ere, autobia-aren hegoaldera pasatzeko eta horrela Ziordira joanen litzateke.

Ikuspegi desberdinak

Sustapen Ministerioaren txostenaren aurkezpena Gobernu Ordezkaritzaren Iruñeko egoitzan egin zen. AHTren aldeko dauden UPN, PSN eta PPko ordezkariek han izan ziren. Geroa Baiko kideak ere izan ziren. Aurretik azaldu zuten, "jarrera kritikoarekin" joanen zirela. Izan ere, Nafarroako Gobernuari

EGUNGOA MANTENDU ETA EUROPAKO ZABALERA DUEN PLATAFORMA BIKOITZA JARRIKO DA

eusten dion lauokorendako asteartekoa "propaganda ekintza" zen. Geroa Baitik "errealitateak, datak eta aurrekontu konpromisoak" eskatu zituzten.

Tren Sozialaren Aldeko Plataformak kontzentrazioa deitu zuen egoitzaren parean. AHTren inposizioari ez, herriak erabaki leloa zuen pankarta zabaldu zuten. Eta haiekin bat egin zuten EH Bilduk, Ahal Duguk eta Ezkerrak. Proposatutako tren ereduarekin kritiko azaldu ziren hirurak.

Sustrai Erakuntza fundazioko Martin Zelaiak "inposiziotzat" jo zuen Espainiako Gobernuaren erabakia: "egungo trenbidea hobetu liteke, hainbesteko kaltea eragin gabe". Fundaziotik azaldu zuten, mahai gainean dagoena "UPN/PSNek planteatutako proiektu bera da. Ez dute deus aldatu. Ez da deus aldatu ez gardentasunean, ez errentagarritasun ekonomikoan, sozialean edo ingurumenezkoan..." Sustapen Ministerioak proposatutako ibilbideak Altsasuko geltokia desagerraraziko lukeela gaztigatu dute Sustrai Erakuntza fundaziotik.

Nafarroa eta EAEko AHT sareak lotzeko aukeren datuak

	Gasteizen lotzea	Ezkion lotzea
Kilometroak	74,8	55,1
Tunel km-ak	5,8	30
Tunel luzeena	1,9	21
Arakil gaineko zubiak	4	8
Zubiak	15	17
Zubi metroak	1800	3200
Ministerioaren puntuazioa*	80	116
Kostua milioitan (BEZ kanpo)	580	1705

*Puntuazio txikiagoak ingurumenaren gaineko eragin txikiagoa adierazten du

Nafarroako eta EAEko AHT loturak eta hirien arteko denborak

	Gasteizen lotzea	Ezkion lotzea
Iruñea-Gasteiz	30 minutu	36 minutu**
Iruñea-Donostia	62 minutu*	44 minutu***
Iruñea-Bilbo	56 minutu*	40 minutu**

* Gasteizen gelditu gabe

** Ezkion gelditu gabe

*** Ezkion gelditzea eskatzen du

AGENDA

EMAIGUZUE ZUEN EKITALDIEN BERRI ASTEAZKENEKO EGUERDIA BAINO LEHEN. Tel.: 948 56 42 75 / gutunak@guaixe.eus

OSTIRALA 12

ALTSASU Hama beads.
18:00etan, Intxostiapunta gazte gunean.

ETXARRI ARANATZ Beilatokia toki egokian. Nahi izanez gero posible da kontzentrazioa.
19:00etan, Kale Nagusiko 7. zenbakiaren parean.



URDIAIN Mainamikirri liburuaren aurkezpena.
19:00etan, Kaluxa tabernan.

ARBIZU ETA ETXARRI ARANATZ Euskal presoak Euskal Herrira kontzentrazioak.
20:00etan, plazan.

ALTSASU Altsasukoak aske kontzentrazioa.
20:00etan, udaletxe parean.



URDIAIN Jon Barbarinek Tximino jakintsua antzezlanak jokatuko du.
20:30ean, Mareo tabernan.

OLATZAGUTIA Gerbrand Bakkerren *Todo esta tranquilo arriba* liburuaz hizketatuko da irakurle taldea.
21:00etan, liburutegian.

ALTSASU Suburbicon filmaren emanaldia.
22:00etan, lortia kultur gunean.

LARUNBATA 13

ALTSASU Altsasu, Urritzola, Lizarrusti arteko 87 km-ko joan-etorria eginen dute Barranka Txirindulari Taldeko errepide atalekoek.
09:30tan San Juan plazatik irteera izango da.

ALTSASU Pantaila erraldoiak, dance eta barredora.
17:00etan, Intxostiapunta gazte gunean.



ALTSASU Alex Rabanal eta Kike Bigurik Dravet sindromearen aldeko elkartasun bakarrizketak eginen dituzte. *Realidades olvidadas* eskainiko du Xabi Lunak.
19:00etan, lortia kultur gunean.

IGANDEA 14

SAKANA Araotz eta Oñati arteko ibilbidea eginen du Sakanako Mendizaleak taldeak.
7:00etan autobusa Irurtzundik abiatuko da.



ALTSASU Arabako trikuharrietara 50 km-ko joan-etorria eginen du Barranka txirindulari klubeko mendi-bizikleta taldeak.
09:00etan, klubeko bajeratik.



OLATZAGUTIA II. Txori erakusketa-trukaketa.
10:00etatik 13:00etara, frontoian.

ALTSASU Ortzadar taldeak eta momotxorroek Iruñean emanen duten elkartasun ikuskizuna aurkeztuko dute.
17:00etan, Josefina Arregi klinikan.

ALTSASU Deep el pulpo filmaren emanaldia.
17:00etan, lortia kultur gunean.



ETXARRI ARANATZ Zama doinuz arindu III musika elkartasun jaialdia.
17:30ean eta 19:30ean, kultur etxean.



ALTSASU Momentos izenburua jarri dio Chuma Arginarizek bere pintura erakusketari.
Otsailaren 2ra arte astegunetan 18:30etik 21:00etara eta domeketan 17:30etik 21:00etara, lortia kultur gunean.

ALTSASU El tercer asesinato filmaren emanaldia.
17:30ean eta 19:40ean, lortia kultur gunean.

ALTSASU Suburbicon filmaren emanaldia.
19:30ean, lortia kultur gunean.

ALTSASU Euskal presoak Euskal Herrira kontzentrazioa.
20:00etan, Foru plazan.

OSTEGUNA 18



ALTSASU Laura esaten zioten. Miren Odriozolaren borroka liburuaren aurkezpena.
19:00etan, Gure Etxean.

ALTSASU Wonder wheel filmaren emanaldia.
19:00ean, lortia kultur gunean.

Elurrarekin autoan zein neurri hartzen duzu?


ELURRETAKO GURPILAK

21 %72,41




KATEAK

1 %3,45




EZ DUT NEURRIK HARTZEN

3 %10,34



EZ DUT AUTOA HARTZEN

4 %13,79



GUZTIRA

29



DEKOVEN NAVARRA
CARPINTERÍA DE P.V.C.

info@dekovenavarra.com
www.dekovenavarra.com
Ibarrea industrialdea, 9 pabiloia · ALTSASU
Telf./Faxa: 948 468 360 · Telefono mugikorra: 690 641 860



ESKELAK JARTZEKO: 948 56 42 75edo eskelak@guaixe.eus

- Hileta egunean eskela Guaixe Paperean:
Oroigarria edo Esker ona Guaixe Paperean: 50,82 €
Guaixeko bazkideendako 45,74 €
- Eskela pertsonalizatuak Guaixe Paperean:
75,02 € / Guaixeko bazkideendako 67,52 €

IRAGARKI SAILKATUAK**HIGIEZINAK**

Lakuntzan gela bateko apartamentua alokatzen dut, herriko etxe batean dago. Tel 679 50 54 64 Itzi.

OHARRAK

Odol-emaileak. Olazti: Ilbeltzak 15, 17:00-20:30. Etxarri Aranatz: ilbeltzak 17 eta 24, 17:00-20:30

Haurraren loa. Kafe tertulia Juanjo Kintelaren eskutik. Haur psikologoa, psikomotrozista eta aholkulari pedagogikoa. Azaroak 29, 17:00etan, hitzaldi irekia. Kattuka haur eskola, 948 467 009, info@kattuka.com. Arbizu

Idazlearekin hizketan. Kirmen Uribe idazlea azaroaren 17an, ostiralean, 19:00etan Altsasuko lortia kultur gunean izanen da. Arbizu, Etxarri Aranatz, Urdiain, Altsasu, Olatzagutia eta Ziordiko liburutegiek antolatuta eta Liburutegi Zerbitzuak antolatuta.

Katalaneko mintzataldea. Katalanez ikasi eta/edo hitz egiteko interesa duzu? Sakanan mintzataldea sortu nahi dugu. Jarri harremanetan gurekin (629 486 123 Monika-Arbizu)

Enplegarritasuna hobetzeko bitarterkaritza eta aholkularitza zerbitzua. Sakanako Enpresarien Elkarteak langabeei eta lan bila dabilzanendako duen aholkularitza zerbitzua da. Harremanetarako, 948 468 307 telefonoa.

Euskonews ekonomikoki laguntzeko kanpaina. Informazio gehiago: www.euskonews.com/laguntza, euskonews@euskonews.com, 943 32 22 94

Autoenplegurako laguntza. Zure lanpostua sortu nahi baduzu Cederna-Garalurrek honako laguntza eskaintzen du: ideia aztertzea, proiektua garatzea, enpresa sortzea edota martxan dagoen jarduera sendotzea. Argibide gehiago: 948 56 70 10, sakana@cederna.es edo sakana.admon@cederna.es

GoiEner Iruñean. Landa-errek utzitako lekuan, Joaquin Beunza, 9 behea, Errotxapean, hilabeteko lehenengo eta hirugarren asteazkenetan, 17:00etatik 19:00etara etor zaitezke informazioa jasotzera, zalanitzak argitzera, ekarpenak egitera...

Volkswageneko langileendako deia. Iruñeko lantegiak zure elkartasun proiektua deialdia bigarren urtez aurkeztu du. Bocalan Biak Bat fundazioak "Lau zango milaka irri" programa aurkeztu du laguntza deialdi horretara. Proiektua aurkeztu duten Sakanako elkarte bakarria dira. Fundaziotik Volkswageneko langileek 24 proiektuaren aldeko botoa ematera animatu dituzte.

0700279128 eta Caixa 2100217387 0200346965

Euskaldun bat euro bat. Nafarroako erresumakoa izan zen Baigorriko Etxauzia gaztelua euskaldunentzat berreskuratu nahi da. Nafartarren eta euskaldun guztien etxea izan dadin. Gure kultura, ekonomia, historia eta mugaz gaindik harremanak antzinarazteko gune bizia. Informazioa www.euskaldunbateurobat.com

Gazteei jarritako isunak ordaintzeko. Euskal preso eta iheslariek aldeko abenduaren 30 ekimenean parte hartu zuten gazte sakandarrek 6000 euroko isuna jaso dute. Mozal legearen aplikazio horri elkartasunetik erantzun kolektiboa emateko dinamika martxan jarri dute gazteek. Diru ekarpenak egiteko kontu korrontea zabaldu dute. ES67 3008 0014 2133 8075 1119

Otaiko ermitaren alde. Eraikina konpontzeko diru bilketa egiten ari dira. Ekarpentak parrokian edo herriko banku eta kutxetan zabalduak kontuetan sartu daitezke.

GALDUTAKOAK

Patinete bat galduta Altsasun (Txioakan). Azaroaren 26an scooter bat (oxelo) Altsasun galduta zen Txioka inguruan. Edozeinek aurkituko balu 666 057 858 telefonora deia dezaitezke. Eskerrik asko.


www.iragarkilaburrak.eus

JAIOTZAK


- **Mikel Zabalza Aulestiarte**, abenduaren 14an Arbizun
- **Enara Beltza Serrano**, abenduaren 22an Arbizun
- **Nahia San Millan Saez de Muniain**, abenduaren 26an Altsasun
- **Hegoi Amillano Rubio**, abenduaren 23an Altsasun
- **Jair Baptista Frade**, abenduaren 26an Altsasun

HERIOTZAK


- **Ignacia Unzué Lozano**, abenduaren 20an Altsasun
- **Rosalina Valmaseda Aldana**, abenduaren 25ean Altsasun
- **Esrae Mbipil**, abenduaren 26an Iruztzun
- **Maria Etxeberria Salanueva**, abenduaren 29an Altsasun
- **Marcos Maria Bueno Arakama**, abenduaren 29an Iruztzun
- **Amparo Larraya Urdiain**, abenduaren 31n Altsasun
- **Rayan El Goumri**, ilbeltzaren 1ean Iruztzun
- **Eduardo Imaz Aranburu**, ilbeltzaren 2an Lakuntzan
- **Maria Angeles Imaz Mendia**, ilbeltzaren 3an Altsasun
- **Francisco Zelaia Lezea**, ilbeltzaren 5ean Altsasun
- **Lucia Arbizu Maiza**, ilbeltzaren 5ean Etxarri Aranatz
- **Francisca Maiza Erdozia**, ilbeltzaren 6an Etxarri Aranatz

EGURALDIA ASTEBURUAN**Ostirala, 12**


Goizean euri pixka bat egin dezake oraindik, baina egunak aurrera joan ahala, lasaitzera egingo du. Elur maila 1000-1200 metrotara igoko da.

Larunbata, 13

Eguraldi egonkorrekin hasiko dugu eguna. Arratsaldean, aldiz, zaparrada ugari egongo dira. Tenperaturak behera egingo du, elur mailarekin batera.

Igandea, 14

Zaparraden artean esnatuko gara, eguraldi desatsegina izango da egun guztian zehar. Elur mailak 800 metro jarraituko du.

Astelehena, 15

Nahiz eta goizean zaparra da txiki batzuk bota, gutxinaka eguzkia ateratzen joango da, tenperaturaren igoera eraginez.

ESKELA**Txomin Leñena Isasti**

"Txomin Panadero"

PASAIA-URDIAIN, 2018ko urtarrilaren 8an



Nahiko genuke zuk erakusten zenun indarrari eutsi, baina albotik joan zifrenik oraindik ezin sinetsi. Oroitzapenak gurekin daude eta gainera ez gutxi, zauden tokian zaudela guretzat leku bat utzi. BETI GURE BIHOTZETAN, MAITE ZAITUGU

Etxekoak**ESKELA****Txomin Leñena Isasti**

"Txomin Panadero"

PASAIA-URDIAIN, 2018ko urtarrilaren 8an



Lana eginez goaz aurrera kate honetan denok batera gogorri loturik gaude.

PORTUKO OKINDEGIA

INFORMAZIO HAU EPAITEGIETAN ETA UDALETAN JASOTZEN DA. AGERTU NAHI EZ DUENAK, HAN JAKINARAZI DEZALA..

40 tanatorios **IRACHE**
aniversario

"Betidanik"

Tanatorioak: Altsasu – Iruztzun – Lekunberri – Betelu – Leitza

948 19 70 70

@Grupolrache

Grupolrache

www.tanatoriosirache.es

SAKANAKO TOPAKETAK

BENJAMINEN 4. JARDUNALDIA

IGANDEAN, ETXARRI ARANATZEN

10:00: Etxarri Aranatz B / Aralar Mendi
 10:50: Altsasu A / Etxarri Aranatz A
 11:40: Altsasu B / Lagun Artea B
 12:30: Altsasu D / Lagun Artea A
 13:20: Altsasu E / Sutegi

KIMUEN 7. JARDUNALDIA

IGANDEAN, ALTSASUN

10:00: Kaixo / Urdiain
 11:15: Etxarri Aranatz / Sutegi
 12:30: Tipi Tapa / Lagun Artea

Oporren ondoren bueltan dira Sakanako Futbol Topaketak. Benjaminak Etxarrin eta kimuak Altsasun ariko dira.



NAFARROAKO TXAP.

PREFERENTE MAILAKO PARTIDUAK

ILBELTZAREN 13AN

15:45: Aibares / Etxarri Aranatz

ILBELTZAREN 14AN

15:45: Lagun Artea / Artajones

ERREGIONAL MAILAKO PARTIDUA

Altsasuk atseden jardunaldia du

EMAKUMEEN ERREGIONALA

ILBELTZAREN 13AN

17:30: Izarra / Altsasu

Eguberrietako atsedenaldiaren ondoren Nafarroako Futbol Txapelketa bueltan da. Preferente mailan, Lagun Artea 14. postuan eta Etxarri Aranatz 15. postuan daude, biak puntuen faltan. Ea egoerari buelta ematen dioten eta puntuak pilotzen hasten diren. Erregional mailan Altsasu 6.a da eta atseden jardunaldia du eta emakumezkoen erregionalan Altsasu 14.a da eta ea Izarraren kontrako partidaren puntuaren bat ekartzetik duten.

Ezkurdia: "biharkoa partida klabea da"

PILOTA Ezkurdiak eta Zabaletak Elezkano II.a eta Rezusta izango dituzte aurkari bihar Labriten. Binakako borrokan jarraitzeko, ezinbestekoa dute irabaztea. Altuna III.ak eta Martijak, aldiz, lidergoa sendotu nahiko dute Laso eta Albisuren kontra



Befiat Rezusta, Danel Elezkano, Joseba Ezkurdia eta Jose Javier Zabaleta, osteguneko material aukeraketan. ASPE

Binakako hasierako ligaxkako lehen itzulia jokatu da. Gauzak oraindik estu daude. Altuna III.a eta Martija dira liderrak (5 puntu), Elezkano II.a-Rezusta eta Urrutikoetxea-Galarzarekin puntutara berdinduta. Olaizola II.ak eta Imazek 4 puntu dituzte, Ezkurdiak eta Zabaletak 3 puntu eta Victor-Albisuk, Bengoetxea-Larunbek eta Irribarria-Merino II.ak bina puntu.

Azken jardunaldian Altuna III.ak eta Martijak 22 eta 19 irabazi zioten Irribarriari eta Merino II.ari. Partidako onena izan

PARTIDA HASIERATIK GOGORTZEA, HORI IZANGO DA SAKANDARREN ESTRATEGIA

zen Julen Martija. Arakildarrak arerioen presioaren aurrean sufritzen jakin zuen eta bikain eutsi zuen. Zalantzarik gabe, Etxeberrikoak pausu bat eman du aurrera.

Bestalde, Ezkurdiak eta Zabaletak azkeneko bolada nahasiari buelta eman zioten eta euren benetako maila erakutsi zuten, Victorri eta Albisuri 22 eta 10 irabazi eta gero. Hasieratik hartu zuten aurrea, agintea hartu eta bikain aritu zen biko sakan-darra. 3. puntua eskuan, airea hartu zuten.

Bihar partida erabakiorra dute Ezkurdiak eta Zabaletak Elezkanoen eta Rezustaren kontra. "Partida klabea da: irabazten badugu Binakako borrokan sartuko gara; bestela, bidea zailduko zaigu" adierazi du Ezkurdiak. "Azken bi partidatan ongi ibili gara eta ea bide horretan jarrai-

tzen dugun, baina biharko partida oso zaila izango da. Hasieratik agintea hartu eta partida gogortu beharko dugu, gauzak horrela ateratzen zaizkigu ongi" gaineratu zuen Zabaletak. Biharkoa, beraz, tentsio handiko lehia izango da.

Altunak eta Martijak Victor ordezkaturako duen Laso eta Albisu izanen dituzte aurkari igandean Eibarren. Lidergoa sendotu nahi dute Altunak eta Martijak; ea lortzen duten.

Binakako 8. jardunaldia

- Bengoetxea VI.a-Larunbe / Irribarria-Merino II.a (ostirala 20:00, Ultzama. ETB1)
- Ezkurdia-Zabaleta / Elezkano II.a-Rezusta (larunbata, 17:00, Labrit)
- Olaizola II.a-Imaz / Urruti-Zabala (larunbata, 17:00, Bilbo. ETB1)
- Laso-Albisu / Altuna III.a-Martija (igandea, 17:00, Eibar. ETB1)

SAKANAKO PILOTA TX.

PARTIDUAK

GAUR, OSTIRALEAN, LAKUNTZAN

Txikiak:

Gurmindo-Sarazibar (Olaz) / Apaolaza-Vergara (Lak)
 Alegria-Alegria (Lak) / Beloki-Olaetxea (Irur)

Benjaminak 2:

Etxabarri-Razkin (Arb) / Garmendia-Manjon (Arb)
 Lizarraga-Etxaberría (Irur) / Lanza-Marquez (Alts)

Benjaminak 1:

Ducar-Razkin (Arb) / Berastegi-Ganboa (Lak)
 Escudero-Nagore (Irur) / Zubiria-Jokin Olarra (Arb)

GAUR, OSTIRALEAN, OLAZTIN

Kimuak 2:

18:00 Rubio-Lizarraga / Etxeberria-Yaben
 Okiñena-Amiano / Mitxelena-Gastesi

GAUR, OSTIRALEAN, ETXARRIN

Jubenilak:

19:00 Olaetxea-Araña (Etx) / Otxoa-Berastegi (Etx)
 Ansotegi-Gonzalez (Etx) / Lima-Petriati (Arb)


BIHAR, LARUNBATEAN, ARBIZUN

Kimuak 1:

11:30 Lizarraga-Manjon / Martiarena-Markina
 Zabala-Apaolaza / Igoa-Azpeitia

Sakanako Pilota Txapelketa azken txanpan

Abenduko lehen asteburuan hasi zen XXX. Sakanako Pilota Txapelketa. 112 pilotari ari dira lehiatzen, maila guztiak kontuan hartuta. Asteburu honetan azken jardunaldia dago jokoan, txapelketako finalak hurrengo asteburuan, ilbeltzaren 20an jokatuko baitira, Lakuntzan.



Pilotariak Altsasun.



nerea cenoz
nutrición

Giza Elikadura eta Dietetikan Diplomatuak
(Nafarroako Unibersitatea)

info@nereacenz.com
nereacenz.com

Informazio gehiago 654 910 289 telefonoan
Estafeta 16, atzea · Lakuntza
(Bostekoa masaje zentroan)

Pisua kontrolatzeko dietak:

- Argaltzeko dietak
- Pisua hartzeko dietak
- Mantenimendu dietak
- Haurdunaldi-dietak

Patologia ezberdinetarako dietak

- Kirol-elikadura
- Elikadura arazoak
- Nutrizio-hezkuntza



Igor Arrieta eta Iker Mintegi, Ormaiztegin berotzen. NAFARROAKO TXIRRINDULARITZA FED.

Igor Arrieta Euskal Herriko Ziklokros txapelketa

ZIKLOKROSA Igor Arrietak eta Iker Mintegik Nafarroa ordezkatu dute Espainiako Txapelketan

Urtea bikain despeditu eta hasi dute ziklokrosean dabilzan txirrindulari sakandarrek. Abenduaren 30ean Euskal Herriko Ziklokros Txapelketa jokatu zen Izarran (Urkabustaiz). Kadeteen mailan Aralar Txirrindularitza klubeko Intersport Irabia taldeko Igor Arrieta txirrindulariak maila bikaina eman zuen beste behin eta lasterketa irabaztea lortu zuen Uharte Arakilgoak (35:09), Ekin Amorebieta taldeko Aitzol Sasietari 16 segundo aterata. Burunda klubeko Quesos Albeniz taldeko Iker Mintegik ere lan ederra egin zuen eta 15.a sartu zen helmugara, 3:36ra (38:45). Hortaz, kadete mailako Euskal Herriko txapelketa dugu Igor Arrieta.

Ormaiztegin txukun

Urte hasierak ere bide beretik jarraitu du. Igandean, ilbeltzaren 7an, Ormaiztegiako XLVII. Ziklo-

kros proba jokatu zen. Luyando Ganzedo taldeko Mikel Beraza izan zen azkarrena (25:29), Igor Arrietari 28 segundo aterata (25:57). Iker Mintegi bederatzigarrena sartu zen (29:53). Egun horretan Nafarroako Federazioak gertutik jarraitu zuen txirrindulari sakandarren lana.

Asteburuan Espainiako Ziklokros Txapelketara

Izan ere, Nafarroako Txirrindularitza Federaziotik azaldu dutenez, Igor Arrietak eta Iker Mintegik, kadeteetan, eta Unai Esparza (Combustibles Galdeano), jubenetan, ordezkatu dute Nafarroako selekzioa asteburuan, ostiraletik igandera, Legazpin jokatu diren Espainiako Ziklokros Txapelketetan. Gaur arratsaldean taldekako erreleboak jokatu dira eta bihar, larunbatean, gizezkoen kadete mailako txapelketa.

Sakanako Nesken Pala Txapelketa, erabakia

PALA Maila bikaina izan zen Etxarri Aranatzeko finalak. Tamalez, elite mailako txapela ez zen Sakanan geratu, Murillok eta Etxanizek Ruiz de Larramendi eta Aristorena menpean hartu zituztelako, 30 eta 26

Abenduaren 30ean eta 31n jokatu ziren, Etxarri Aranatzeko, XIII. Sakanako Nesken Pala Torneo finalak. Aipatu txapelketa Sakanako Mankomunitateko Kirol Zerbitzuak antolatzen du, Etxarri Aranazko Gure Pilota elkartearen eta Arbizuko eta Etxarri Aranazko Udalen laguntzarekin.



Sakanako Pala Txapelketako finalista guztiak, elkarrekin. UTZITAKOIA

Sakanako Pala Txapelketa

Txitoak

- Ormazabal-Amado 18 / Irisarri-Goikoetxea 7

Kattagorriak

- Erauskin-Larraza 10 / Lopez-Ijurko 18

Usoak

- Beltza-Erdozia 18 / Urbe-Orella 25

Pottokak

- Karasatorre-Otxoa 17 / Gomez-Navarro 25

Promozioa

- Larrarte-Mendinueta 30 / Martinez-Ane 14

Eliteak

- Murillo-Etxaniz 30 / Ruiz de Larramendi-Aristorena 26

Lehiatu diren palistak

Haurren eta gaztetxoeren mailan parte hartu duten palistak ondokoak izan dira: Izaro Agirre, Iraia Amado, Irati Andueza, Mireia Andueza, Andrea Ansoategi, June Atxa, Auritze Beltza, Maddi Beltza, Ane Berastegi, Lucia Bergera, Maitena Bergera, Uxue Biain, Olaia Eizagirre, Olaia Erdozia, Ane Escala, Aroa Goena, Nahia Goikoetxea, Elai Gomez, Irati Igoa, Ane Ijurko, Maria Imaz, Ainhoa Irastorza, Lierni Irisarri, Maialen Irisarri, Miren Irisarri, Iraia Karasatorre,

Irati Lasa, Uxue Mendinueta, Ane Mendiola, Eider Murugarren, Luzia Navarro, Julena Orella, Naroa Otxoa Izar Parot, Amaia Razkin eta Haizea Urbe. Palak, beraz, etorkizunik badu gurean. Helduen mailan, promozio mailan Suarez-Parot, Larrarte-Mendinueta, Otaegi-Eizagirre eta Suarez-Maiza bikoteak lehiatu ziren eta elitean, berriz, Aristorena-Ruiz de Larramendi, Murillo-Etxaniz, Goikoetxea-Eizemendi eta Muneta-Mendizabal. Finalak ikusgarriak izan ziren, maila handikoak.

Txooooo!

JUANLUZENA SAGARDOTEGIA

URTARRILAREN 20TIK MAIATZAREN 6RA ARTE txotx denboraldia zabalik

948 604 571 | 680 652 183 | ODERITZ

Korrikan eta bizikletan despeditu genuen urtea

ATLETISMOA Altsasuko San Silvestrean Sergio Garcia de Eulate eta Izaskun Beunza gailendu ziren, Olaztikoan Raul Audikana eta Vanesa Galbete eta Irurtzunen estreinatutako Pikubestren 150 korrikalarik hartu zuten parte. SDAK antolatutako San Silvestre zikloturista martxan 144 txirindulariren artean Jon Zeberio nagusitu zen

Sakanan barna antolatutako San Silvestretan despeditu zuten urtea gure kirolariek.

Goiztiarrenak txirindulariak izan ziren. Sociedad Deportiva Alsasuak (SDA) antolatuta, 144 txirindularik hartu zuten parte XXXV. San Silbestre Zikloturista Martxan, aurreko edizioan baino 39 gehiago. Estatuan egun horretan antolatzen den bizikleta proba bakarra da, ustez. Eguerdian abiatu ziren txirindulariak, Altsasutik, Urbasako portua helburu. Bertan salda bero-beroa zuten zain.

Nahiz eta proba ez lehiakorra izan, askok benetakoa bezala hartu zuten eta lehia horretan Elizondoko Jon Zeberio gailendu zitzaion Patxi Ciari eta Asier Irigoieni. SDA-ko txirindularitza arduradun Felix Mazkarian kontentu zegoen. "Txirindulari gehiago animatu ziren, eta Conservas del Reynorekin elkarlanean, 18 euroren truke izena eman zuten 98 txirindulariek 45 euroko balioa zuten Conservas del Reynoko saskia jaso zuten trukean, oso pozik. Egunean bertan izena eman zutenek, 10 euro ordainduta, kamiseta jaso zuten opari" nabarmendu zuen.

Arratsaldean atletismoaren txanda izan zen. Lehenak irurtzundarrak izan ziren. Pikuxar Euskal Txokoak lehenengoz antolatutako I. Pikubestreak erantzun ona izan zuen: guztira 150 korrikalarik hartu zuten parte, eta euriari umore ona erakutsi zioten, batzuk mozarrotuta atera baitziren. 14 urtez azpiko 64 partaide eta 14 urtetik gorako 86 partaide izan zituen proba ez lehiakorrak. Ez zen sailkapenik egon, eta bukaeran umeek goxokiak eta esnea jaso zuten eta helduek salda beroa eta pintxo eta potea. Giro polita izan zen Irurtzunen.

Olaztin 16. San Silvestrea antolatu zuen Sutegi klubak. Guztira 105 korrikalarik hartu zuten parte, lau kategoriatan: benjaminak (33 korrikalari), kimuak (34 korrikalari), gazteak (13 korrikalari) eta seniorrak (25 korrikalari). Euriari aurre egi-

nez, benjaminetan Hodei Audikana eta Enara Perez gailendu ziren, kimuetan Achraf eta Iraixe Lapuente, gazteetan Oier Sarazibar eta Maite Vilariño eta seniorretan Raul Audikana eta Vanesa Galbete. Sari banaketarekin despeditu zen festa.

Altsasun 453 korrikalari

Altsasuko San Silvestrea jendetsuena izan zen. Euria eta hotzarekin ez ziren kikildu eta guztira 453 korrikalarik hartu zuten parte Dantzaleku Sakana taldeak eta Sakana Triatloi Taldeak antolatutako 39. Altsasuko San Silvestrea-Mario Lopez de Uralde Memorialean. Horietatik 377 proba nagusian aritu ziren eta gainontzekoak kategoria txikietan. Haurren mailan Hegoi Lakuntzak eta Karla Loreak irabazi zuten eta kadeteetan Iker Sanchezek. Proba nagusian (5 km) Sergio Garcia de Eulate altsasuarrak eta Izaskun Beunza olaztiarrak iazko garaipena berretsi zuten. Ruben Mendieta eta Leire Estarriaga bigarrenak sailkatu ziren eta Imanol Irurtzun eta Erkuden San Martin hirugarrenak.

Bihar NKJak Altsasun

Neguko Nafar Kirol Jolasak Altsasura iritsiko dira bihar, larunbatean, goizeko 10:00etan. Nafarroako Atletismo Federazioak antolatuta, Neguko Nafar Kirol Jolasen Pista Atletismoko 7. jardunaldia hartuko du Dantzalekuk. 14 urtez azpiko kategoriako atletak ariko dira, 2005 eta 2006 urteetan jaiotakoak). Luzera jauziak, jauzi hirukoitzak eta lasterketak (500 m, 150 m, 1.000m, martxa eta erreleboak) dituzte zain Altsasun.

San Silvestreak Sakanan



Eguraldia lagun izan zuten txirindulariek. GUAIXE

XXXV. San Silvestre Zikloturista Martxa. 144 txirindularik eguerdian hartu zuten irteera Altsasutik, Urbasara igotzeko.



Olaztin giro polita izan zen lasterketak jokatu bitartean. SUTEGI

Olaztiko San Silvestreak 16 urte. Guztira 106 korrikalarik parte hartu zuten Olaztiko proban, lau kategoriatan banatuta.



Batzuk mozarrotuta osatu zuten ibilbidea. ITZIAR MATXAIN

I. Pikubestrea, Irurtzunen. Pikuxarrek lehenengoz antolatutako lasterketa arrakastatsua izan zen. Hurrengo urtean errepikatuko dute



Eguraldi txarrari aurpegi ona jarri zioten Altsasun. LEYRE MATEOS

Altsasukoa, beteroena. Nafarroako San Silvestrerik beteroena da Altsasukoa. 39. edizioa izan zen eta 453 korrikalari aritu ziren.



Osasuna Magna laugarrena da.

Liderraren kontra puntu bat lortu zuten berdeek

ARETO FUTBOLA Osasuna Magnak 1. mailako 4. postuan jarraitzen du eta gaur Zaragoza hartuko du

2017ko azken partidari El Pozo Murciaren kontra 2 eta 5 galdu eta gero, urteari hasiera bikaina eman dio Osasuna Magnak, asteburuan Movistar Inter liderraren etxean seina berdindu baitzuen taldeak. Denboraldi honetan Movistar Interren pistari galdu ez duen lehen taldea da irurtzundarra.

Eseverrik Osasuna Magna aurreratu zuen, baina Movistarrek bi gol sartu zituen berehala. Martil aldageletara bidali eta gero, jokalaria bat gutxiagorekin geratu ziren berdeak. Horrela, madrildarren hirugarrena iritsi zen. 3 eta 2 hurbildu ziren irurtzundarrak, baina liderrak laugarrena sartu zuen. Berdeen erantzuna paregabea izan zen: Usinek bi gol sartu zituen eta bosgarrena Saldisek. Movistarrek berdindu zuen eta Usinek berdeen seigarrena sartu zuen. Tamalez, seina berdintzea lortu zuen liderrak. Egindako esfortzuagatik gehiago merezi izan zuten nafarrek.

Movistar da liderra (47 puntu) eta Osasuna Magna laugarrena (37 puntu). Gaur sailkapenean 6.a den Rios Renovables Zaragoza taldea hartuko dute berdeek 20:30ean Anaitasunan, eta asteartean Gran Canaria izango dute aurkari Kanariar irletan.

Mendialdea Irurtzungo torneoko txapelduna

ARETO FUTBOLA Guan taldeak antolatutako II. Emakumeen Areto Futbol Txapelketan 9 taldek hartu zuten parte. Finalean, Berriozarko Mendialdeak 8 eta 0 irabazi zion aurreko urteko txapeldun Gasteizko New Team taldeari

Guan taldeak Irurtzungo Udaren laguntzarekin antolatuta, abenduaren 30ean jokatu zen II. Emakumeen Areto Futbol Txapelketa Irurtzungo kiroldegian. 9 taldek eman zuten izena eta 12 orduko torneoak izan zen.

Lehen multzoan Xota A, Gotxando eta Beti Kozkor taldea lehiatu ziren, bigarren multzoan The Mothers, New Team eta Lizarreria eta hirugarren multzoan Lekunberri, Altsasu eta Taka-Tiki. Ligaxka jokatu ondoren finalerdien txanda izan zen eta, azkenean, final handia. Finalera Berriozarko Mendialdea taldea eta Gasteizko New Team taldea iritsi ziren. "Pena izan



Xota eta Taka-Tiki talde irurtzundarrak, 3.ak eta 4.ak. IÑAKI MORILLAS

Olaztiko saria Etxarrira

ARETO FUTBOLA Abenduaren 31n II. Olaztiko Eguberrietako Areto Futbol Txapelketa antolatu zuen Sutegik. Lagun Arteak, Altsasuk, Sutegik eta Etxarrik hartu zuten parte. 3. eta 4. postua erabakitzeko partidari Sutegik 4 eta 3 hartu zuen menpean Altsasu, eta final handian Lagun Arteak eta Etxarrik bana berdindu eta gero, etxarrirek lortu zuten garaipena penaltietan.



SUTEGI

Iskizaren erakustaldia

Eguberrietako oporren aurretik, ikasturtean barna ikasitakoa praktikan jarri zuten Iskiza Sakana gimnasia erritmikoko taldeko gimnastek. Koreografia ederrez eta ikuskizun bikainaz gozatu zuten Zelandi kiroldegian bildutakoek. 2017an 10 urte bete zituen Iskiza Sakanak eta gogotsu jarraitzen dute lanean, beste horrenbeste urte ospatzeko prest.



ISKIZA SAKANA

zen Gasteizko taldeko neska bat lesionatu izana. Zazpi jokalarirekin egin behar izan zioten aurre finalari eta izugarri nabaritu zuten. Mendialdekoek 8 eta 0 irabazi zieten. Ordura arte oso ikusgarria izan zen txapelketa, baina finalean Berriozarkoak iazko txapeldunen ginetik pasa ziren" aipatu digu Guan taldeko Iñaki Morillasek.

Hirugarren eta laugarren postuak zehazteko finala Xota eta Taka-tiki jokatu zuten, biak talde irurtzundarrak. Berdindu eta gero, penaltietan erabaki zen lehia eta Xotako neskek izan ziren txapeldunak. Hortaz, hirugarren eta laugarren postua etxean geratu ziren.

Sailkatu ziren lehen lau taldeek saria jaso zuten, eta, horretaz gain, Maite Villanueva jokalaria onena eta Naiara Hernan-Gomez Jimenez atezain onena izendatu zituzten, biak Mendialdea taldekoak. "Sekulako giroa egon zen txapelketan. Jende asko gerturatu zen eta partida ikusgarriak izan ziren. Guztia atera zen ongi, giroa bikaina... heldu den urtean ere antolatzeko asmoz" aitortu zuen Morillasek.

Mendia urtea despeditu eta agurtzeko topaleku

MENDIA Mendizaleek mendira jo zuten 2017ko azken egunetan eta 2018ko lehenetan

Egun seinalatuetan mendira jotzeko ohiturari jarraiki, 2017ko azken egunean irurtzundarrak Ergara igo ziren, lakuntzarrak Lakuntzaskoarrira eta altsasuarrak eta olaztiarrak Aizkorrira eta Balankalekura, besteak beste. 2018an, Errege egunean, Sakanako Mendizaleak taldeak deituta 20 mendizalek topa egin zuten Beriainen, elurrari aurre eginez. Eta Altsasuko Mendigoizaleek urteko lehen igandean antolatuta, 30 kide inguru bildu ziren igandean Bargagainen, elurra mara-mara ari zuela.

Igandean Araotz-Oñate

Sakanako Mendizaleak taldeak txangoa antolatu du iganderako, ilbeltzaren 14rako. Araotz-Oñate mendi ibilbidea osatzea da proposatu dutena. Autobusa Irurtzundik aterako da igandean, goizeko 7:00etan. Izena emateko 639 11 76 31 telefonora hots egin daiteke.



Zabalarte klubak deituta, lakuntzarrak Aralarreara jo zuten urteko azken egunean, Lakuntzaskoarrira. ZABALARTE



Balankalekun, igandean. ALTSASUKO M.



Irurtzundarrak Ergako Trinitatean bildu ziren urteko azken egunean, urtea behar bezala despeditzeko. ITZIAR MATXAIN

CBASK taldeen aurkezpena

SASKIBALOIA Abenduaren 30ean Juanjo Marin Memorialean aurkeztu zituen Altsasuko Saskibaloia Taldeak (CBASK) aurtengo bere 10 taldeak. Lagunarteko partidari, gizonetako 1. Senior Autonomikoko CBASK-ek 70 eta 64 irabazi zion San Jorgeri. Bihar, Tafallan, Escaleras Aguerri izango du arerio CBASKek. Altsasuarrak hirugarrenak dira.



Etxeberria eta Balda Iruñean sarituak

Iruñeko Udalak sortzaile berriendako euskarazko literatur lehiaketako 27. edizioan bi emakumezko sakandarrek sariak jaso zituzten abenduaren 21ean: Izaskun Etxeberria Zufiaurre altsasuarrak eta Nerea Balda Sanjuan irurtzundarrak

IRURTZUN / ALTSASU

Euskarazko literatur sormena sustatzeko asmoz Iruñeko Udalak urtero antolatzen duen literatur lehiaketan bi sakandarrek hiru sari jaso dituzte. Narrazio laburren saria Izaskun Etxeberria Zufiaurrek irabazi du *Eguna eta gaua besarkatzen ez direnean* lanarekin. Saileko 3. saria Nerea Balda Sanjuanendako. Berak, gainera, poesia sailean, *Maleta bete mundu* sortarekin aipamen berezia jaso zuen.

Etxeberriak badaki zer den lehiaketa horretan saritua izatea 2017koa laugarren saria baitu. Azkeneko hori "erabat fikziozkoa da. Testuinguru desberdina, pertsonaiak ere. Protagonista emakumezko portugaldar bat da. Ondoren ezagutuko duen adiskide batek esango duen bezala: patuak edo zorteak eraman duen bidetik joan egin da, berak aukeratu gabe". Guztia narrazioan eman du. "Elkarrizketak ere badira, baina zehar estiloan emanak. Erabat bata bestearen gainean idatzita, sortzen diren momentuetan. Nolabaiteko puzzlea da: piezak lotzen doaz; irakurri ahala istorioa osatzen doa".

Etxeberriaren narrazio bat dago Pamiela argitaletxeak joan den urtean kaleratutako *39 idazle nafar* liburuan. "Gonbidapena ilusio handiarekin hartu nuen. Aldi berean, nire burua ez nuen ikusten bilduma horretan. Bidali nuen narrazioa, gustatu, onartu eta hortxe dago".

Halakoek argitaratzeko tentazioa pizten dutela aitortu digu altsasuarrak; "eta lehendabiziko beroaldian are gehiago. Gero denbora faltagatik gehiago kostatzen da. Noizbait zerbait, behar bada, eginen dut". Orain ez du ezer esku artean. Bere burua idazle baino irakurletzat du, "gozatu egiten dut irakurtzen. Idazteak beste lan bat eskatzen du. Baina gero, emaitzak ikusita, gustura sentitzen da".



Nerea Balda Sanjuan eta Izaskun Etxeberria Zufiaurre. IRUÑEKO UDALA

BI IDAZLEEN 2017KO BIGARREN SARIA DA: ETXEBERRIAK MIRANDA ARGAN ETA BALDAK BIZKAIDATZ

Sariak pareka

Baldak narrazio labur eta poesia atalean sari bana jaso du. Bietan eroso sentitzen den galdetu digu eta esan digu garai batean poesia gehiago idazten zuela. "Orain narrazioan ere gustura nabil. Baina ez dakit zeinetan nabilen gusturago". Sortutako ideia adierazpide batekin edo bestearekin garatzea "denboraren arabera" egiten du: "narrazioak eserialdi luzeagoa eskatzen du. Poesiak, ideia sortu eta, agian, eserialdi batean poematxo bat idatz daiteke, nahiz eta gero bueltak eman".

Irurtzundarrak aitortu digu idaztea beti gustuko izan duela, "inoiz ez dut oso serio hartu". Gaineratuz, unibertitate garaian gehiago idazten zuela, baina urte askotan ez duela ezer idatzi. Baina "gogo" hor zegoen eta berriro heldu dio idazteari.

Lehengo urtean Bergarako idazle eskolan izena eman zuen, "nire burua gustuko horretara behartzeko. Horren bitartez askoz gehiago idatzi dut".

Baldaren narrazioan hainbat urteren ondoren elkartzera doazen ikaskide ohiak dira protagonistak. "Guztiek gazteetako argazki bat jasotzen dute. Gertaera bat gogoratzen dute, bakoitzak bere modura. Badago pertsonaia misterioz bat bilerara ez doana-badoana. Eta bukaeran, elkartzen direnean, borobiltzen da dena: zehatz-mehatz jakiten da zer gertatu zen". Narrazioa "esperimentu moduan" hartu zuen eta sekuentzia laburretan garatu zuen kontakizuna. Argi agertzen da bakoitzaren izena.

Poesia sorta maleta gaia hartuta ondu du. Bi atal dituela azaldu digu Baldak. "Zati bat udan idatzi nuen, bidaiarien istoriotxoak dira Beste zatia maleta barrukoa, sentimenduak, bizipenak". Estilo librean idatzitako poema motzek osatzen dute saritutako sorta. "Horretarako joera izaten dut" Jakinarazi digunez, garai batean Iruñeko lehiaketan parte hartu zuen.



Joan den urteko kontzertuaren momentu bat. UTZITAKOA

Ikuskizuna eta kontzertu akustikoa, karga arintzeko

Euskal Herriko abeslari ezagunek kontzertu bikoitza (17:30 eta 19:30) emanen dute Etxarri Aranatz en tzi

ETXARRI ARANATZ

Etxarriko Sarek eta senide eta lagunek hirugarren urtez *Zama doinu arintzeko* kontzertu-ikus-kizuna antolatu dute. Aurreko edizioetan bezala helburua musikariaren doinuen laguntzaz "euskal presoei aplikatzen zaien salbuespenezko legedia salatu eta hortaz ematen diren hainbat eskubide urraketen zama arintzea izan da; eta, aldi berean, urtetan luzatu den gatazkaren konponbidean urratsak ematearen aldeko mezua zabaltzea.

"Urtetako gatazkaren ondorioz oraindik gainean dugun zama arintzeko" antolatzaileek "lehen mailako" musikariak ekarriko dituzte Etxarriara: Mikel Urdangarin, Niko Etxart, Alex Sardui eta Haimar Arejita (Gatibu), Kutxi Romero, Ines Osinaga, Petti, Ekiza (Willis Drummond) eta Irati Lasa eta lagunak. "Kartelarekin oso pozik" daude. Gai-

nera, emanaldietan ere sorpresak izanen direla iragarri dute antolatzaileek.

Oharrak

Oraindik ere sarrerak daudela jakinarazi digute antolatzaileek. Haiak www.etxarriaranatz.eus eta Leku Ona eta Xapatero tabernetan eskuratu daitezke. Sarrerak Internet bidez erosi dituenak inprimakia eraman beharko du.

Kultur etxeko atea emanaldiak hasi baino ordu erdi lehenago irekiko dira eta bost minutu lehenago itxi. Bi emanaldiak berdin-berdinak izanen dira. Parte-hartzaile bakoitzak bina kantu abestuko ditu akustikoan. Kontzertutik bai, baina ikuskizunetik ere izanen du saioak. Antolatzaileek jakinarazi dutenez, emanaldietan ezinen da argazkirik edo bideo grabaziozko erregistroa egin.

Ogiaren artisauak

PORTUKO okindegia

2018 Urte berri on!

ETXARRI ARANATZ: 948 460 988
ALTSASU: Denda: 948 563 822 • Lantegia: 948 467 153

Mainamikirriren bi istorio berri kalean

Burundako sorginaren bi kontakizun berri kaleratu dituzte Fanietorri argitalpenetako hirukoteak. Haiek Nafarroa Oinezekin bat egin dute eta bere dendetan saltzen dena Iñigo Aritza ikastolarendako izanen da. Horrek, bestalde, kultur erronda antolatu du

SAKANA

Castillo Suarez, Joxemari Morcillo "Morkots" eta Enara Intsaustik Mainamikirri ipuina egokitu eta ilustrazioz betetako liburuxka joan den urteko apirilaren 28an aurkeztu zuten. Hirukoteak osatzen duen Fanietorri argitalpenak orain Burundako sorgina protagonista duen beste album bat argitaratu du.

Lan berri horrek Mainamikirri sorginaren "misterioz eta magiaz beteriko" bi ipuin jaso ditu: *Erregeren alaba* eta *Katu beltzak*. Sortzaileek azaldu dutenez, "Mainamikirri, toki guztietara berandu iritsiagatik, dohain bereziak zituen gaixorik zegoen jendea sendatu ahal izateko". Batean erregearen alabaren gaitzari aurre egin beharko dio, bestean, hiru haur gaixo zituzten senar-emazte gazteen arazo handia izanen du parean.

Suarezek, Morkotsek eta Intsaustik hitzez, irudiz eta musikaz osatutako aurkezpenak



Mainamikirriren ilustrazioa. UTZITAKOA

antolatu dituzte: Urdiainen, gaur, 19:00etan, Kaluxa tabernan; Altsasun, ilbeltzaren 19an, 19:00etan, Basoko Marin; Olatzagutian, ilbeltzaren 22an, 17:00etan, liburutegian eta Ziordian, otsailaren 2an, 19:00etan, liburutegian.

Kultur erronda

Izen hori du Iñigo Aritza ikastolak hurrengo lau asteburuetarako antolatu duen kultur programazioa. Ikastolak Burundako lau herrietako ikasleak hartzen ditu eta haietan izanen dira saioak. Gaur Urdiainen hasiko dira. *Mainamikirri* liburua aurkeztuko dute bere egileek Kaluxa tabernan, 19:00etan. Hura despeditu ondoren, Jon Barbarinek *Tximino jakintsua* antzez-lana jokatu du Mareo tabernan, 20:30ean.

Ilbeltzaren 20an Olatzagutiko kultur etxean Joseba Arlegik *AEBtako mendebaldean eskalatzeko* proiektzioa emanen du, 19:00etan. Ziordiren txanda ilbeltzaren 26an izanen da. Ni neugaltzeta ipuin-kontakteta izanen da liburutegian, 19:00etan. Eta 20:00etan, Zubi-ondo kantuzekin kantu-poteoa iragarri dute. Kultur erronda despeditzeko Eñaut Elorrietak kontzertua eskainiko du Altsasun otsailaren 3an.



Lau sakandar izan ziren 2017an.

Biko-teka tailerlean izena emateko aukera

Liburu grafikoetarako ilustrazio eta narrazio tailerra hilaren 29tik otsailaren 2ra, Iruñean

SAKANA

Sakanako Mankomunitateko Euskarazko Zerbitzuak Nafarroako beste hainbatekin batera album ilustratuengatik inguruko Etxepare proiektua martxan dute. Haren bidez Iruñeko Udalak eta Galtzagorri elkarteak antolatu duten Biko-teka tailerren berri eman du, euskarazko liburu grafiko edo album ilustratu berriak sortzeko akuluan izan nahi duena.

Lau egun eta erdiz (37 ordu) liburu ilustratu bat nola pentsatu, idatzi, sekuentziatu, marraztu eta argitaratu daitekeen landuko da. Idazlea eta ilustratzailea bikoteka jarriko dira. Nor bere lanera bideratutako erabakiak hartzen laguntzen Aitziber Alonso ilustratzailea eta Harkaitz Cano idazlea izanen dira.

Irudigile eta idazle banak osatutako zortzi bikotek parte hartu dezakete tailerlean. Izena emateko ilustratzaile bakoitzak 3 ilustrazio bidali beharko ditu. Idazleek, berriz, gehienez ere orrialdeko luzera duen testu laburra. Horiek eta dokumentazio gehigarria hilaren 15era arte aurkeztu behar dira. galtzagorri@galtzagorri.eus helbidean. Argibideak 943 471 487an edo www.galtzagorri.eus-en.

Kultur-abonamendua estreinakoz Olatzagutian

Olatzagutiko Udaleko Kultura Zerbitzuak kultura herritarrei gerturatzeko asmoz eta programatutako emanaldietara sarbidea errazteko kultur abonamendua prestatu du. Lau emanaldietarako txartela da, 20 eurotan eskuratu daitekeena. Ikuskizun bakoitzerako txartelak banaka erosita baino 12 euro merkeagoa da horrela.

Abonamenduan jasota dauden ikuskizunak honakoak dira: Susana Soleto eta Diego Perezen bakarrizketak (ilbeltzaren 19an), *Salir de cuentas a los 50* antzez-lana (martxoaren 9an), *Ez dok hiru* antzerki musikala euskaraz (apirilak 21) eta Puro Relajo mexikar musika jotzen duen taldearen kontzertua (maiatzak 13).

Abonamendua eskuratzen ez dutenek eta txartela txarteldegian erosten dutenek emanaldi bakoitzeko zortzina euro ordaindu beharko dituzte. Sarrerak aldeztatik aurretik erosiz gero, berriz, seinan euro.

Iortia kultur guneko abonamendua eskuragai daude

Altsasuko Udaleko Kultura Zerbitzuak martxo akaberara arteko programazioa publiko egitearekin batera, sarrerak merkeago eskuratzeko abonamenduen berri eman du. Hiru aukera eskaintzen ditu, bi publiko helduarendako eta bestea familiarreko abonamendua. Azken horrek *Guela*, *guela* (otsailak 4) eta *30 elefantes bajo un paraguas* (martxoak 18) antzezlanak eta bi edo hiru zinema sarrera hartzen ditu 8 edo 10 eurotan.

Helduendako eskaintzari dagokionez, lau antzezlan eta film bat ikusteko sarrerak 33 eurotan eskuratu daitezke. Honakoak dira hartzen dituen ikuskizunak: The Primitives Brothersen komedia musikala (ilbeltzak 27), eta *Pulgas* (otsailak 24), *Conversaciones con mamá* (martxoak 10) eta *Salir de cuentas a los 50* (martxoak 24) antzezlanak. Bigarren aukera hiru antzezlanen (otsailaren 24koa ez) eta film baten sarrerak osatzen dute eta 24 euroko balioa du.

Argiñarizen irudigile ibilbideari errepasatzeko aukera

Altsasuko Iortia kultur gunean otsailaren 2ra arte; astegunetan 18:30-21:00 eta domeketan 17:30-21:00

ALTSASU

Chuma Argiñarizek marrazkiz eta pinturaz osatutako *Momentos* erakusketa mustu zuen herenegun. Irudigile iruindarrak bere ibilbidean izan dituen etapetako obrak zintzilikatu ditu, "momentu desberdin horietan egindakoaren errebasoa" osatuz.

Izan ere, Argiñarizek plastika-adierazpen desberdinak landu baititu. Komiki eta ilustrazioarekin hasi zen, txinatar tintarekin marrazki landua eta xehetasunez betetakoak egin zituen. Handik kolorera eta mihisera



Jendea Argiñarizen erakusketa ikusten.

pasa zen eta natura, loreak eta landareak irudikatu zituen; "xehetasunetan entretenitzen nintzen".

Estiloa eta teknika aldatu zituen "une garrantzitsua" izan zuen bere lana "pop-agoa" bihurtuz. Orduan "des-marrazten eta koloreak betetzen" hasi zen, erretratuan eta giza-irudian zentratuz. Beste garai batera salto egin zuen ondoren irudigileak eta bere obrako gaia terrazak, hiriak, portuak eta beselakoak bilakatu ziren. Horietan Argiñarizek "koadroa osatzen duten elementuak xehetasunez marraztu eta, ondoren, margotzerakoan des-marraztu" ditu. Ez du baztertu bere obrari etorkizunean "buelta berria" ematea. Baina bitartean orain arteko momentuetan guztietan sortutako lanak ikusgai jarri ditu.

Sakana, iragana eta oraina argazki lehiaketak sarituak ditu

Garai bateko argazki zaharra hartu eta gaur egun toki berean argazkia egitean zetzan eta 34 bikote izan dira

SAKANA

Sakanako Garapen Agentziaren ekimena izan da *Sakana, iragana eta oraina* argazki lehiaketa. Ibarreko toki esanguratsuetan, paisaietan, ondarean, turismo baliabideetan eta abarretan denbora nola pasatu zen islatuko zuten argazki bikoteak sortzea zen kontua. Lehiaketara aurkeztutako 34 argazki bikoteak Sakanako Garapen Agentziaren Facebook-eko profileria igo zituzten eta bisitariak aukeratu dituzte gogokoenak.

Bi maila zituen lehiaketak. Aurrenekoan parte-hartzaileek etxeko albumeko argazki bat hartu eta eduki bera duen argazki bat egin behar zuten. Maila horretan Izaskun Salinasek lehen saria irabazi du, Lakuntzako iturria agertzen den argazki bategatik. Bigarren saria, berriz, Garazi Artiedarendako

izan da, Dorraoko kaleetan baren egindako argazkiagatik.

Etxeko argazki albumeko argazkiak erabili nahi ez zutenei Sakanako Garapen Agentziak bere web orrian bederlatzi argazki proposatu zieten. Eskaintza hori onartu eta lehiatu zirenen artean Leire Labianok lortu du lehen saria. Unanuko ikuspegia jasotzen duen argazkiagatik. Bigarren saria Arkaitz Zudairendako izan da, Lakuntzako pikotako argazkiagatik.

Lehen saria eskuratu dutenek Canon EOS 1300D reflex argazki kamera bana jaso zuten eta bigarren saria lortu zutenek Sakanako produktuez osatutako eguberritako zarea.

Lehiaketara aurkeztutako argazki guztiak Sakanako Garapen Agentziaren Facebook-eko profilerian daude ikusgai. Baita sarrituenak ere.



Izaskun Salinasen lehen argazkia. SGA



Izaskun Salinasen oraingo argazkia. SGA



Egileak Baluarten. Taila taldeko ateak nahi duenarendako zabalik daude. A. GUZMAN

Altsasuko taila taldearen erakusketa Iruñeko Baluarten

Ilbeltzaren 26ra arte dago ikusgai, 11:00etatik 13:30era eta 17:00etatik 20:00etara, ezkaratzean

ALTSASU

Altsasuko taila taldeko kideak Jesus Mari Olmosekin ikasi zuten zura lantzen, udalak antolatu zuen ikastaro batean. Klaseak utzita, udalak irakasleen etxea zen hartan utzitako gelan elkarrekin aritzen dira lanean taldeko kideak. 5 eta 10 urte arteko eskarmentua dute zurgintzan. Taldean ari direnez elkarri laguntzen diote eta ideiak partekatzen dituzte.

Alberto Guzman, Mario Olmedillo, Javier Jaka, Raul Elortza, Martin Zelaia eta Alfredo Garcia. Haiek dira Altsasuko taila taldea osatzen dutenak eta Olmosekin batera 30 bat piezaz osatutako erakusketa jarri dute Iruñean ikusgai, momotxorroak zainduta. Azaldu digutenez, Altsasuko maiatzeko artisau azokan parte hartzen dute. Baina estreinako aldia dute areto batean euren lana erakusten dutena.

Bisitariak tamaina guztietako kutzak, erlojuak, munduko mapak, Pablo Picassoren *Gernika* koadroaren erreprodukzioa, aterkiak jartzeko ontzia, eguzkiloa, Leonardo da Vinciren *Vitruvio* marrazkiaren erreprodukzioa eta beste zurez eginak ikusteko aukera dago. Baita Garciak harriz egindako ahari burua, hontza eta momotxorroa ere. Erakusketan elkartasun kutxa jarri dute, nahi duenak bere diru-ekarpenak egiteko. Jasotakoarekin gastuak estali eta gainerakoa Josefina Arregi klinikarendako izanen da.

Taldeaz

Ia hamar urteko ibilbidea du Altsasuko taila taldeak. Dozena bat biltzen dira, gizonezkoak, baina dozena erdi emakumezko ere aritu izan dira zura lantzen. Astean bizpahirutan elkartzen dira.



BAZTERRETIK

MAR GONZALEZ RUIZ DE LARRAMENDI

Azala hotz, begiak bero



Duela aste batzuk, eguzkiaren lehen izpien zain nengoela hondartza hutsean, mutiko argal bat agertu zen. Bere berokia lurrean ipini eta gerturatu zen uretara, nire presentziak ohartu gabe. Bertan geratu zen luzaroan, zerbaiten zain edo begiradan galduta.

Ilehoria zelako, iletzuria ia, bururatu zitzaidan atzerritarra izango zela. Hotzak nire eskuak estutzen zituen artean, berak ez zuen berokia jasotzeko imintziorik egin. Tente zegoen,

geldirik, eta noizean behin begiak, bere buru gainera igoz, beren buru gainera atzetik alde egiten zitzaizkion. Eta bakarrik geratzen zenean, berriro itzultzen zen ortzemugara, hodeien atzean pizten ari ziren koloretara.

Kaioak bertan zeuden, eta itsasoa, eta zerua, baina ni ez nengoen inon, ez ninduen behin ere begiratu.

Nik berriz, berari begira, eguzkiaren lehen imintzioak galdu nituen. Eta une hartan

jertsea kendu zuen gainera, eta kamiseta. Gero galtzak, galtzerdiak eta galtzontzilloak. Argal-argala zegoen, eta ezin zuriagoa zeukan azala. Begiak eguzkian josita murgildu zen uretan, eta norabide horretan ekin zion igeri egiteari.

Ura hotz zegoen, eta neguko eguzki berri baina nekatuak ez zuen gehiegi berotzen. Eguzkia hodeien atzean galdu zenean, bere burua ere galdu nuen nik urruntasunean.

Ordu erdia igaro zen agian, igerilaria itzuli baino lehen. Uretatik ateratzean akabatuta zirudien: gorputza dar-darka, sorbalda erorita, gainean zama jasangaitza eramango balu bezala. Bere mugimenduak mingarriak ziruditen. Eta hala ere, luzaroan eutsi zion eguzkiari begirada, itsasertzen alboan. Bertatik begiak kendu gabe jantzi zuen arropa, bere azken indarrak ahitzen bezala. Alde egin baino lehen, berriro altxatu zituen begiak eguzkirantz, eta ezpainen bigunak irribarre ezegonkor batean hartu zuten indarra: azala hotz, begiak bero.

Okiñenaren lanak Zizurko galeria batean ikusgai

Mikel Okiñenarendako ezaguna da Zizur Nagusiko ArteA2 galeria (Idoia kalea, 9). Eguberrietan erakusketa kolektiboa antolatzen du eta eskultore irurtzundarrak 2014an, esaterako, parte hartu zuen. Aurten ere bere obra beste 14 sortzailerekin batera ikusteko aukera dago galerian. Zurez eta brontzez egindako eskultura sorta jarri

du ikusgai. Alde batetik, koloreztatutako eta zutik jarritako adar modukoak daude. Bestetik, metakrilatoan landu izan zituen bezala, zurezko eskultura bertikalak, binaka jarriak, totem itxura dutenak. Zuraren tratamenduari dagokionez, berozkoa eta kolorea dute.

Erakusketa abenduaren 8an mustu zen eta ilbeltzaren 27ra arte dago ikusgai, goizez, asteartetik larunbatera 10:00etatik 13:00etara eta arratsaldean, aste-gunetan, 17:00etatik 20:00etara.



Lastailean hasi ziren katala ikasaten eta dagoeneko testuak irakurri eta zuzendu egiten dituzte.

Katalanez hitz egitera batzen dira astean behineko saioetan Arbizun

Lukas Larrazak azaldu digunez, momentuz 8 kideko taldea da eta ordu bateko "klaseetan" katalaneraz moldatzen ikasteko elkartzen dira. Badakizue ba, katalanez hitz egiteko lekua badago Sakanan.

Leyre Mateos Galarza ARBIZU

1 Nondik atera zenuten ideia?

Idea Monikarena izan zen, berak interesa zeukan eta beste pertsona batzuk interesa zeukela esan zidan. Nik katalanez

hitz egiten dudanez ideia ona iruditu zitzaidan eta hola hasi ginen.

2 Zergatik katalanera?

Bi pertsona zeuden nigana etorri baino lehen. Jendeak ka-

tanera ikasteko interesa zuen eta praktikatzeko zenez, katalanera taldea sortu zen.

3 Nola izan zen hasiera?

Hasieran gaude, lastailean hasi ginen. Orain gutxi gora-

behera testuak irakurri eta zuzenketa da egiten duguna.

4 Nola elkartu zineten kideak?

Monikak ideia zuen bezala, jende ezagunarekin, harremana zeukan jendearekin biltzen joan

zen eta handik aurrera etorri da taldea.

5 Nolako da saioen funtzionamendua?

Printzipioz testu bat irakurri eta ahoskatzea zuzentzea da egiten duguna. Egun batez sukaldako errezeta bat ekarri, krema katalana, irakurri eta zuzendu genuen. Ondoren elkartean krema katalana sukaldatu genuen.

6 Norik prestatzen ditu saioak?

Monikak berak prestatzen ditu fotokopia batzuk. Normalean prentsa katalaneko artikulua bat izaten da, hangoko albiste bat normalean. Baina baita Euskal Herriko zerbait katalanez idatzita.

7 Non egiten dituzue saioak?

Arbizuko Aldabide elkartean egiten ditugu, mahai batean, beti pikatzeko zerbaitekin. Giro lasaia da, baino badaude apunteak hartzen dituztenak.

8 Eta noiz?

Asteazkenetan, 19:00etatik 20:00etara.

9 Nongoak zarete taldeko kideak?

Donostiako mutiko bat, Etxarriko neskato bat, Irurtzungo beste bat eta beste guztiak Arbizukoak.

10 Edozein gehitu daiteke taldera?

Edozein, nahi duena.

11 Mailaren bat behar da taldean sartzeko?

Ez, dagoen maila oinarritzkoa da, batzuk pixka bat ulertzen zuten, baino besteek ez daukate ideiarik.

2018-2019 IKASTURTEKO MATRIKULAZIO KANPAINA

Egin zure aukera
Lehenbailehen

gk
KOMUNIKAZIOA

948 564 275
Foru plaza, 23-1. Altsasu
gk@gkomunikazioa.eus
www.gkomunikazioa.eus

Kartelak

Eskuorriak

Iragarkiak

Kuñak